

**25**  
**hh**  
hik hasi **URTE**

**Ikama: ikasleak martxan dira**  
**Rakel Gamitori elkarrizketa**  
**Oztopo guztien gainetik eta protokolo**  
**guztien azpitik, ildo pedagogikoari eutsiz**  
**Uriz Pi ahizpen ideia berritzaileak**  
**HitzKeta**  
**Aines Dufau**

252



**ZORIONAK, HIK HASI**  
**GEROA ELKARREKIN IDATZIKO DUGU!**

CLAIRE ZUCHELLI-ROMER

# EMOZIOAK

## HATZ PUNTETAN

TTARTALO

Maitagarriak direnean,  
goxo-goxo ferekatzen gaituzte hatz txikiak.

Filul!

Batuetan, haserretu egiten dira hatz txikiak  
orduak, kolpeka hasten dira.

Danba-danba!

ZURE HATZ TXIKIAK OSO TREBEAK DIRA EMOZIOAK ADIERAZTEN:  
POZA, HASERREA, TRISTURA...  
ZURE HATZ TXIKIEK GUZTI-GUZTIA SENTITZEN DUTE.

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## IKASLEAK MARTXAN DIRA

Ikama (Ikasleria martxan) antolakunde berria sortu dute ikasleek, Euskal Eskola Herritarra eta Burujabea jomugatzat hartuta. Erakundearen helburuak eta ildoak finkatu dituzte eta hemendik aurrera ikastetxez ikastetxe eta institutuz institutu dauzkaten gatazkei eta erronkei helduko diete, aldi berean beraien artean saretuz.

## ELKARRIZKETA / 16

### RAKEL GAMITO

Adingabeen Interneteko erabilera-ohiturak eta online bizi dituzten egoera gatazkatsuak aztertu zituen doktore tesian EHUko irakasle eta ikerlariak. Hezkuntza-teknologia, gaitasun digitala, irakasleen prestakuntza eta genero ikuspegia dira bere lan-ildo nagusiak eta p erspektiba horretatik martxotik ekainera bitartean ikastetxeak itxita egon diren garaian online egindako irakaskuntza esperientziaren balorazioa eskatu diogu elkarrizketan.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Mikel Agirrezabala, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostitzu.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi,

Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANtza S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2020-10-27).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

### 5 EDITORIALA

Hik Hasi opari batekin dator 25. ikasturtean

### 6 ALBISTEAK

### 10 GAI NAGUSIA

Ikasleak martxan dira

### 16 ELKARRIZKETA

#### RAKEL GAMITO

“Euskolak ezin dio bizkarra eman bere ikasleen errealitate birtualari”

### 24 ESPERIENTZIAK

Oztopo guztien gainetik eta protokolo guztien azpitik, ildo pedagogikoari eutsiz

### 28 EKARPENAK 1

Zorionak, Hik Hasi Geroa elkarrekin idatziko dugu!

### 34 EKARPENAK 2

Uriz Pi ahizpak, ideia berritzaileen defendatzaile sutsuak

### 36 GALDEIDAZU

#### ASIER ETXENIKE

‘Eskolara buelta’ inkesta egin duzue familien artean. Zer iritzi eta kezka dituzte?

### 39 ARGITALPENAK

### 40 PROPOSAMENA

Haurrentzako euskal kulturaren sarea

### 42 ATZEKO ATETIK

Aines Dufau



eskola

Bai!  
Igo lasai!

Hemen  
musukorik gabe  
gaude eta ratioak  
ere itzelak dira!

# Hik Hasi opari batekin dator 25. urteurrenean

## editoriala

25 URTEKO IBILBIDEAREN ONDOREN, HIK HASIK GUZTIONTZAKO HEZKUNTZA-EREDU HOBE BATEN ALDEKO ADIERAZPENA AURKEZTU DU, PREMISA GARRANTZITSU BATEKIN: ELKARREKIN EGITEA AURRERA.

kasturte berezia izaten ari da aurtengoa COVID-19a dela-eta, baina **Hik Hasiren**tzat berezia da beste arrazoi bategatik ere: 25 urte bete dituelako! **Hik Hasi** aldizkariaren 252 zenbaki, **Hazi Haziren** 34 zenbaki, hamaika material eta monografiko, makina bat ikastaro, topaketa eta formazio. Fruta asko eman dituen zuhaitza izan da eta oraindik ere ematen jarraituko duena. Harpideek eman dioten ongarrria funtsezkoa izan da, bai frutak emateko, eta baita zuhaitzaren itzala handitzeko ere. **Hik Hasik** denok gerizpe horretan elkartuta sentitzeko lana egin du, hezkuntza komunitateko partaideen artean topagune bat eskaintzeko apustua.

Orain, 25 urte beteta, hezkuntza komunitate horri enbido berri bat luzatzen dio: elkarrekin, guztiontzako hezkuntza-eredu hobe baten alde jarduteko proposamena. Une honetan bizitzen ari garen egoeratik abiatuta, Euskal Herriko hezkuntzak aurrera begira egin dezakeenaren gaineko proposamena da (32. orrialdean dator adierazpena osorik).

Euskal Herriko hezkuntzak unea du aurrera begira jarri eta eraldaketa sakona egiteko. Eta horretarako, garrantzitsua da nor bere lubakitik atera eta konturatzea hezkuntza guztiona eta guztiontzako dela eta hezkuntza hobetzeko elkartu beharra dagoela. Hezkuntza eragileen elkarlana eta adostasunera iristeko borondatea



funtsezkoak dira.

Horrekin batera, familiek, aisialdiko profesionalek, jendarteak eta herriak heziketaren ardura beren gain hartu behar dute. Jendarte osoak elkarrekin aritu behar du, elkarrekiko konfiantzan eta elkarzaintzan oinarrituta, herri hezitzailea denon artean gauzatuz.

Herritar euskaldun eleaniztunak sortu behar ditugu, horretarako mantentze eta murgiltze ereduak gauzatuz eta herri askotariko eragileak bidelagun izanik. Euskararekin batera, euskal kulturaren transmisioa eta sormena sustatzea ezinbestekoa da. Gure haur eta gazteak bizitzarako hezi behar ditugu, naturarekin bat eta gaitasun ekosozialetan trebatuta; beraz, heziketak kritiko eta askatzailea behar du izan. Beste era bateko antolaketa eredu behar dugu: sistema publiko eta komunitario baterazlea, anitza, parte-hartzailea eta inklusiboa izango dena. Eta hezkuntza antolaketa berriak, eragin-korra izan dadin, finantziario egokia beharko du, hezkuntzak gizartean duen garrantziaren arabera eta hezkuntza-premiei erantzuteko behar bestekoa.

Erronkak hor daude, enbidoa botata. Zuen hordagoaren zain gaude. Adierazpena partekatze, hausnartzeko eta lantzeko gonbidapena luzatzen dizue **Hik Hasik**. Hausnarketa kolektiboak eginez, zuhaitzaren gerizpean elkartu eta aurrera egiteko denok elkarrekin.

“Orain dela hainbat urte ezarritako elementuek (hiru hizkuntza ereduak, itunpekoaren eta publikoaren inguruko bereizketak, atzerritarrekin gertatzen ari den segregazioak...) aspalditik behar dute eguneratzea. Eta hori posible egiteko momentua ere izan daiteke legegintzaldi berria”

Felix Arrieta



## EAE-KO ESKOLA KONTSEILUAK D EREDUARI BURUZKO AZTERKETA ESKATU DU

EAEko Eskola Kontseiluak txosten bat aurkeztu du eta bertan, besteak beste, euskararen egoerari arreta berezia eskaini dio, eta D eredu sakon aztertzeko deia egin du. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, etengabeko hazkundean dago D eredu, baina ez du lortzen haurrak guztiz euskalduntzea; izan ere, ikasleek gero eta euskara maila baxuagoa dute. EAEko Eskola Kontseiluak konponbidea ezarri nahi dio arazoari, eta D ereduari buruzko “azterketa sakon bat” eskatu du.

Eskola Kontseiluak 2017-2018ko eta 2018-2019ko ikasturteetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntzan izandako egoera aztertu du. D ereduaren hazkunde “geldiezinak eta iraunkorrak” eta haren presentziak euskal hezkuntza sistemaren ardatz bihurtu dutela dio txostenak. Ikasleen gehiengoa hartzen du: sare publikoan, ikasle guztien % 41, eta itunpekoan, % 24. Aldea dago, ordea, bateko eta besteko ikasleen ezaugarrien artean. Sare publikoan, areagotu egin dira ikuspegi sozioekonomikotik eta kulturaletik maila baxua dutenak, eta ikasleen ia herenak dira. Itunpeko sarean, berriz, LHn, maila sozioekonomiko baxuko familietatik datozen ikasleen ehuneko oso txikia da (% 3), eta DBHn, 2017ko datuen arabera, % 15ekoa zen. D ereduaren kontrara, A eredu —ikasgai guztiak gazteleraz dituzte eta euskara ikasgai bat soilik da— eta B eredu —ikasgaiak euskaraz eta gaztelaniaz dituzte— gainbehera doaz.



### **Iparraldeari begira, euskarazko irakaskuntzari bidea irekiz**

Iragan uztaillean, Hiriburuko (Lapurdi) eskola publikoak murgiltze eredu ireki nahi izan duelarik, Frantziako Hezkuntza Ministerioak debekatu egin zion eta protesten ondoren eta bilkuren ondoren, urri honetan Frantziak onartu du murgiltze ereduaren esperientzia baimentzea Hiribururi. Halaber, euskarazko irakaskuntzarentzat koadro bat aurkitzeko gogoeta fase bat hasiko dutela ere iragarri zuen Bordeleko Akademia errektoreak, ama eskolatik lizeoraino, elebidunean sartzen diren hurrek zinezko ibilbide bat izan dezaten. Horrek Iparraldeko hiru lurraldeetan elebiz ikasteko aukera hedatu lezake.

## IPARRALDEKO ESKOLEI PROTOKOLOA GOGORTUKO DIETE

Emmanuel Macron Frantziako presidentek koronabirusaren aurkako neurri zorrotzak iragarri zituen urriaren 28an, telebista bidez: konfinamendua ezartzea hobetsi zuen Frantziako Estatu osoan, eta ondorioz, Ipar Euskal Herri osoan ere eragina izanen du itxialdi berriak: “Kutsadurari eten bortitz bat ezartzen ez badiogu muturreko egoeran egonen gara” esanez arrazoitu zuen neurriak zorrotzea. Urriaren 30ean sartu zen indarrean bigarren konfinamendua, eta hasmentan, abenduaren 1a arte luzatuko da. Dena den, udaberrikoa baino arinagoa izanen da bigarren konfinamendu hau eta ikastetxeak irekita egonen dira, unibertsitateak izan ezik, haiek hertsirik atxikiko dituzte eta eskolak distantziara emanen dituzte. Gainerakoan, haurtzaindegiak, ama eskolak, lehen mailakoak, kolegioak eta lizeoak irekiak izanen dira, betiere osasun protokolo zorrotzagoekin.

Neurrien artean esanguratsuen maskaren erabileraren adina jaistea izan da. Orain arte 12 urtetik aitzinera bazen ere derrigorrezkoa, oraindik aitzin 6 urterekin dagoeneko baitezpadakoa izanen da ikastetxe guztietan. Halaber, haurren arteko distantziamentuak ere areagotzeko deia egin dute agintariek.

Haur parkeak eta lorategiak irekirik mantenduko dituzte konfinamenduak irauten duen bitartean ere.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## HEGOALDEKO IKASTETXEETARAKO BESTE 1.300 IRAKASLE KONTRATATUKO DITUZTE



Hezkuntza arloko eragileek ikastetxeetarako baliabide gehiago eskatu dituzte azken asteetan, eta kopuru zehatzak mahai gainean jartzen hasi dira Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak: ia 1.300 irakasle gehiago jarriko dituzte. Nafarroako Gobernuak jakinarazi du ia 600 irakasle jarri dituela koronabirusak sortutako beharrei erantzuteko. Eusko Jaurlaritzak bilera egin zuen atzo sindikatuekin, eta, *Berria* egunkariak jakitera eman duenez, datozen egunetan 669 irakasle jartzeko asmoa dauka gobernuak.

Nafarroari dagokionez, Carlos Gimeno kontseilariaren esanetan, 596 irakasle gehiago hartu dituzte: gehienak, sare publikorako (461), baina itunpeko eskoletarako ere bai (135). Gainera, gobernuak 2,9 milioi euroko diru saila onartu du aurtengo eta hurrengo ikasturteetarako, sare publikorako irakasle gehiago kontratatzeko. Irailean onartutako lege batean jaso zuten inbertsio hori, eta badira neurri gehiago ere: 57 urtetik gorako irakasleei ordu kopurua murriztea, eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentroetan zuzendaritzako lanetan jarduteko denbora areagotzea, esate baterako.

### Negoiazio falta

Eusko Jaurlaritzak, berriz, irakasleen mahai sektoriala bildu zenean adierazi zuen 669 irakasleko kopurua kontratatzeko asmoa. Aipatutako postu horiek guztiak sare publikorako lirakeke, eta bereziki euskara arlorako eta digitalizatorako daude bideratuta, nahiz eskola bakoitzeko premien arabera molda daitezkeen. Haatik, hezkuntzako sindikatu nagusiek iragarpenera negoziatu gabe eta premiak erabat ase gabe egin izana kritikatu diote Jaurlaritzari.

## ENPLEGU ETA SEGURTASUN ESKE JO DUTE GREBARA ESKOLA JANGELETAN


Segurtasuna, lan baldintzak eta enplegua bermatzeko grebara irten dira urrian hiru bider Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskoletako jangeletako langileak. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta. Enpleguan eta lan baldintzetan segurtasuna eskatzen dute.

Denbora da langileek duten behar nagusietako bat. Ikastetxe askotan, distantziak mantentze aldera, txanda gehiago egin dituzte jantokian, eta, beraz, haurrek azkarrago jan behar dute. Haatik langileek eskatzen dute eguerdiko tarteak lasaia izan behar duela, eta garrantzia eman behar zaiola. Lanpostuak ere zalantzan ikusten dituzte. Lankide askok lanpostua galdu dutela salatu dute. Adibidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jangelak desagertu egin dira. Beste konfinamendu baten aurrean, Jaurlaritzak ez die zehaztu zer gertatuko litzatekeen euren egoerarekin, eta horren aurrean, langileek segurtasuna eskatu dute enpleguan eta lan baldintzetan.

Era berean, greba egunetan Eusko Jaurlaritzak ezarritako gutxienerako zerbitzuak kritikatu dituzte langile eta sindikatuek: Begiraleei dagokionez, 2 eta 3 urteko geletako langileen % 100ak joan behar izan zuten lanera, eta 4 eta 5 urteko haurrentzat, berriz, ikastetxeeko begiraleen % 10ak lan egin behar izan zuten.



## EUSKARALDIAN IZENA EMATEKO UNEA IRITSI DA



Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da aurten Euskaraldiaren ariketa eta dagoeneko izena emateko aukera zabalik dago. Euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia, gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Norbanako bezala ahobizi edo belarriprest izanez parte hartzeko aukera dago. Ahobizik euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko konpromisoa hartzen du. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakienean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko du. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da. Belarripresten kasuan, ulertzen duten guztiekin uneoro euskaraz hitz egiteko konpromisorik ez du hartzen. Nahi eta ahal beste egin dezake euskaraz; baina besteek euskaraz egin diezaioten eskatuko du. Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.

Aurten norbanako gisa parte hartzeko aukeraz gain, taldean parte hartzeko aukera ere izango da ariguneeen bidez. Hau da, ariketa taldean egin ahal izateko aukera egongo da. Ariguneak euskaraz lasai aritzeko guneak dira eta euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan (barne ariguneak) edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean (kanpo ariguneak). Orain arte ehunka izan dira ariguneak sortu edo identifikatu eta Euskaraldian parte hartzea erabaki duten elkarteak, taldeak, erakundeak, enpresak... Modu horretan, hainbat eta hainbat ahobizi eta belarriprestek euskaraz lasai aritu ahal izango dute mota eta tamaina guztietako entitateen baitan. Herri bakoitzean ariguneak non topatu daitezkeen jakin nahi izatekotan, [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)-en begiratu daiteke.

## PELLO JAUREGI EUSKARALDIAREN TEORIZATZAILEARI EMAN DIOTE ANTON ABBADIA SARIA

Euskal herritarrek Euskaraldiaren ariketa egiten ari diren egunetako batean, azaroaren 27an, emango dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Pello Jauregi Euskaraldiaren teorizatzaileari Anton Abbadia saria. "Merezimendu osoz" jasoko duen saria emateko arrazoi hauek aipatu ditu Aldundiak: "Euskararen hedapenerako aukera neurtezinak sortu ditu, eta egin dituen gogoeta eta ikerketa horietatik abiatuta, dinamika sozial bat sortzeko gaitasuna izan du; konbinatu egin ditu, gainera, ikerketa teorikoa eta praktika, ulermenaren gaineko ikerketan aritu baita, eta, hori lortzeko, klaseak emateraino iritsi da; bere ikerketarekin, oinarri sendo bat eman dio gizarte ekimenari: ikertu, egin, neurtu eta ebaluatu".

Abbadia saria euskararen normalizazioaren aldeko lanetan nabarmendutako pertsona edo elkartearen jarduna saritzeko sortu zen, 1996an. Jauregi Soziolinguistika Klusterrak martxan jarritako *Aldahitz* ikerketaren zuzendaria da, besteak beste. Hizkuntza ohituretan aldaketak izateko zein aldagaik parte hartzen duten aztertu dute, eta metodologia bat sortu horiek bideratzeko: *Eusle* metodologia. Horrek eragina izan zuen Euskaraldiaren oinarri teorikoan eta horri buruz Jauregik egindako ikerketa oinarri esanguratsua izan zen ariketa sozialerako. Horietan guztietan izan duen parte hartzeagatik sarituko dute.

# HIZPIDE IZANGO DA

## IKASKUNTZA ZERBITZUEI BURUZKO LAN SAIOA ANTOLATU DU DONOSTIAKO BERRITZEGUNEAK

Azaroaren 19an, 16:30-19:00 tartean, Donostiako Berritzeguneak antolatutako Ikaskuntza Zerbitzuei buruzko lan saio bat izango da meet bidez. Saio honen helburua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin ikasturtero egiten den elkar-jartzea gauzatzea da. Ikastetxeen eta erakundeen proiektuak partekatuko dira, proiektuak garatzeko tresnak eta baliabideak ere trukatzu eta aurrerabideak ikusiz. Honako hau izango da egitaraua:

- 16:30ean sarrera: Ikaskuntza Zerbitzua proiektuen lekua ikas-prozesuetan.
- 16:45ean Ikastetxeetako eta erakundeetako proiektuak:
  - Lauaizeta BHI (Donostia)
  - Iturrama BHI (Iruñea)
  - Alboan
- 17:45: Ikaskuntza Zerbitzua proiektuetarako baliabideak:
  - Jolas eta Ekin
  - ESKURA, Giza Eskubideak lantzeko Pedagogia baliabidetegia
- 18:15: Ikaskuntza Zerbitzuaren markoa gaur egun: sareak, esperientzi bankuak... Zerbikas
- 18:30: Ondorioak, aurrerabideak eta itxiera. Berritzegunea.

Izen-ematea helbide honetan egin behar da: <http://g01.berritzeguneak.net/eu/inscripcion.php?codigo=2070G01C04>

## HIK HASIK HAINBAT EKINTZA ANTOLATU DITU 25. URTEURRENA OSPATZEKO

Hik Hasik 25. ikasturtea du aurtengoa eta ohiko jardueraz gain, beste hainbat antolatu ditu hezkuntza komunitate osoarekin batera ospatzeko urteurrena. Hona hemen egitaraua:

- Azaroak 14: *Natura: eskola bizia* jardunaldia. Hizlariak: Iñaki Larrea —*Naturaren onurak haurren garapenean*—, Heike Freire, Ekongunea —*Natura, eskolara-ko tresna*— eta ikastetxeetako esperientziak.
  - Urtarrilak 21, Adierazpenaren inguruko hausnarketa kolektiboa Iruñean.
  - Martxoak 20, *Autonomia, iniziatiba eta sormenaren lanketa jaiotzetik nerabazarora* jardunaldia Tafallan, Agerraldiarekin elkarlanean. Hizlariak: Nora Salbotx, Jaume Funes, Xabier Tapia, Ane Ablanado, Iñaki Arana eta Iñaki Eizmendi.
  - Maiatzak 20, Adierazpenaren inguruko hausnarketa kolektiboa Bilbon.
- Informazio gehiago [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunean izango da.



## 'EUSKARA ETA FEMINISMOA BIDEKIDEGUN' MAHAI-INGURUAK ONLINE AZAROAN ZEHAR

Hizkuntzaren eta generoaren arteko guratzaketaz hausnartzeko, lau mahai-inguru antolatu dituzte Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak, Emakundek eta Hizkuntza eta Generoa batzordeak elkarlanean. Azaroko astearteetan izango dira guztiak goizeko 10:00etan eta online. Hauek dira mahai-inguruen izenburuak: *Hizkuntza eta generoa: hurbilpen teoriko bat; Ez gara euskaldun jaiotzen, egin egiten gara; Hizkuntza, generoa eta beste menderakuntza batzuk; Euskalgintza-aren eta feminismoaren arteko zubiak*. Informazio gehiago eta izen-ematea [www.euskaraetafeminismoa.eus-en](http://www.euskaraetafeminismoa.eus-en).



Euskal Herriko ikasleek antolakunde berri bat sortu dute, Ikama izena eman diotena (Ikasleria martxan). Azken urteetan ikasleen artean sumatu duten hutsunea betetzera dator, Euskal Herriko ikasleak elkarrekin harremanetan jarri eta saretzera. Eta behin itsasontzi berera igota, norabide berean egin nahi dute arraun: Euskal Eskola Herritar eta Burujaberantz. Badakite zein itsasotan murgildu diren eta bidaia horretan esku artean izango dituzten mapak, arraunak, patroiak, sareak eta lanak definitu dituzte. Dagoeneko Euskal Herri osoko 70 ikastetxe, institutu eta lanbide eskoletako 370 ikasle ontziratu dira, eta badakite gehiago izango direla. Euskal hezkuntza sistema propioa ortzimugan jarritak euskal eskola burujabea, nazionala, publikoa eta askatzailea amesten dute.

# GAIA: IKASLEAK MARTXAN DIRA

## Ikama antolakundea sortu dute

Ikasle batzuen artean sortutako dinamika Euskal Herriko ikasle antolakunde bihurtu da. Ikama (Ikasleria martxan) erakunde berria beste era bateko euskal hezkuntza sistema aldarrikatzeko sortu da eta sistema berri horren eraikuntzan bere alea jartzeko, noski. Antzeko ideiak zituzten ikasleak beren ikastetxeetan elkartzen hasi ziren 2019 inguruan, euren asanbladak eginez. Ikastetxe batekoak beste batekoen berri izaten hasi ziren, Lasarte-Oriako institutuok Oiartzungoen berri, haiek Nafarroakoekin erlazionatzen eta abar. Elkar ezagutzen eta ideiak partekatzen hasi ziren eta 2019. urteko ekainean Donostian bildu ziren denak, Euskal Herri osotik etorritako ikasleak DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak. Lehenengo bilkura nazionala izan zen eta *Gora Ikasleon Borroka* dinamika sortu zen handik. Ikasleen mugimendua piztu zen dinamika harekin, ikasturtean zehar egindako ekintzekin eta ikastetxez ikastetxe egindako aurkezpenekin. Han eta hemen hitz egindakoa, partekatutakoa, eztabaidatutakoa eta bildutakoa landuz joan ziren *Kargatzen* deitu zioten prozesuan, eta azkenean *Izpia* dokumentua ondu zuten ateratako ondorio guztiekin. Konfinamenduan egindako

geldialdiaren ondoren, berriro ere dokumentua hartu eta hori jantzita agertu da Ikama jendartearen. Horixe da Ikamaren soinekoa, dokumentu horrek jantzi du antolakunde berria eta horrekin abiatu du ikasturte berria.

*Izpia* dokumentuan “Nondik gatoz, non gaude eta norantz goaz” atalak josi dituzte Ikamako kideek. Ibilbidearen hasiera gogoratzeaz gain, gerora itsasontzian sartzen diren partaideek prozesuaren hastapenak ezagutzea garrantzitsutzat jo dute, “batzen diren guztiek jakin dezaten nondik gatozen”, diote Aitzol Gil de San Vicente eta Izaro Cuadra bozeramaileek. Atal horretan ikasleek ez dute euren burua norbanako soiltzat hartzen, kolektibo gisa baizik: “Euskal Herriko ikasleok, ikasle gisa eta euskal herritar gisa, kolektibo bat osatzen dugu, problematika komun bat bizi dugulako”, argitzen du Cuadrak. Aipatzen duen problematika hori beren heziketa prozesuarekin guztiz lotuta dagoela dio, ikasle izate hutsagatik ezaugarri bereziak dituztelako eta “zapalkuntza berezitua” ere bai. Horregatik, heziketa prozesua garatzeko beste modu bat aldarrikatzen dute, “biharko Euskal Herria eraikitzeke pertsona kritikoa

# GAIA: IKASLEAK MARTXAN DIRA

Ikama antolakundea sortu dute



eta askeak heziko dituen hezkuntza eredua”. Horren alde egin nahi dute arraun, “jakin badakigulako eredu berri hori ez digutela eskura emango, gure lan indarraz, borrokaz eta ilusioz eraikiko dugula”.

## Euskal Eskola Herritar eta Burujabea dute jomugan

Ikasleek argi diote: Euskal Herriko hezkuntza egitasmoak ikasleak erdigunean jartzea nahi dute. Bizi diren gizarteko baldintza sozialak, kulturalak, politikoak nahiz ekonomikoak aintzat hartzen dituen eredua aldarrikatzen dute. Horrekin batera, errealitatearekin lotura izatea garrantzitsua iruditzen zaie, eta errealitate hori ulertzeko eta eraldatzeko bitartekoak eskaintzea ere bai. Jasotzen duten jakintza elkartrukatzea nahi dute eta herriaren medeserako erabiltzea. Pertsona kritiko, parte-hartzaile eta aktiboak heztea nahi dute. Eta hori guztia posible egingo duen eredua Euskal Eskola Herritar eta Burujabea dela diote.

Hezkuntza egitasmoaren ezaugarriak ongi definituta ditu Ikamak: burujabea, nazionala, publikoa eta askatzaileria. “Lau ezaugarri horietan barnebiltzen dira gure ideia guztiak eta lau ezaugarri horien baitan txertatzen dira gure hausnarketa guztiak” dio Izaro Cuadra Ikamako bozeraileak.

- **Burujabea:** “Herri orearen eskubidea da bere hezkuntza antolatzea eta kudeatzea eta herri garen heinean, gurea ere bai”, idatzi dute *Izpia* dokumentuan. Herriaz gain, herritarrak ere aipatzen dituzte, azpimarratuz herritar orok duela erabakietan parte hartzeko eskubidea. Era berean, euskal curriculum propioa garapena defendatzen dute, alegia, curriculum propioan ardatzea heziketa prozesuaren edukiak: ebaluazio-sistema, pedagogia eredua, lantzeko den materiala, ikaskuntza metodoak eta gainerako alorrak. Bertako eta momentuko behar errealean arabera zehaztutako euskal curriculum izango litzateke, eta horren baitan ikasleak prozesuaren zentroan jartzea aldarrikatzen dute.
- **Nazionala:** Euskal Herri osoa bilduko duten hezkuntza sistema defendatzen dute Ikamako ikasleek. Euskara, euskal kultura eta Euskal Herriaren historia ardatz harturik nazio izaera eta identitatea landuko dituen, herriarekiko lotura bultzatuz, euskalduna izango dena eta ikasle euskaldun eleantunak heziko dituen. Hezkuntza Euskal Herriaren behar errealei erantzuteko moldatu behar dela diote eta eredu dezentralizatuak horretan lagundu egingo lukeela.
- **Publikoa:** hezkuntzak guztientzat eskuragarria izan behar duela azpimarratzen dute. Eta hezkuntza planifikatzeko, antolatzeko eta gauzatzeko garaian hezkuntza-komunitateak izan behar duela protagonista.

## GAIA: IKASLEAK MARTXAN DIRA

Komunitate horren barruan ikasleak zentroan kokatzeari garrantzi berezia ematen dio Ikamak. Publikoa definitzeko unean, Ikamarentzat publikoak esan nahi du doakoa, eskuragarria, euskalduna, merkatuaren logikatik at kokatzen dena, feminista, inklusiboa, laikoa eta ahalduntzailea.

- **Askatzailea:** norgehiagoka, indibidualismo eta menpekotasun oro gainditzeko, bizi eredu askatzaileak garatzeko oinarriak eta tresnak eskainiko dituen hezkuntza defendatzen dute. Kolektibotasuna indartu eta elkartasuna eta auzolana landu nahi dituzte. Era berean, heziketa prozesuak, askatzaile izango bada, pertsona kritikoa, aktibo eta parte-hartzaileak sustatu beharko dituela azpimarratzen dute.

## Lanerako filosofiak

Definizio eta ideia horiek idatzita dituzte ikasleek, proiektua finkatuta dute, baina horiek bideratu behar dira ondoren. Horrexegatik finkatu dituzte lanerako hiru filosofia eta horietatik dira euskal ikasleriaren artean sustraitu nahi dituztenak. “Lanerako filosofiak, finean, gure helburuak lortzeko garatuko ditugun borroka diseinatzen aintzat hartu beharreko elementu zentralak dira, begiratzeko jarriko ditugun betaurrekoak”, dio Aitzol Gil de San Vicente bozeramaileak. “Euskal Eskola Herritar eta Burujabearen oinarrian dauden balore eta gako ideologikoak barnebiltzen dituzte filosofia hauek. Ikasleen artean hausnartzeko, jarduteko eta borrokatzeko filosofia bat txertatzen dugu”. Hala, ikasle subjektu berriak oinarrian izango dituen filosofiak hiru dira:

- **Ikasleriak du hitza eta erabakia:** ikasleen ahalduntzeari eta burujabetzari lotutako filosofia da. “Euskal ikasleriaren subjektu politiko izaera aitortzea eta lantzea nahi dugu, askotan bigarren mailan geratzen garelako ikasleak hezkuntzaz hitz egitean, gurasoen eta irakasleen azpitik”, dio Gil de San Vicentek. Ikasle subjektua hezkuntza prozesuaren erdigunean jartzea aldarrikatzen dute.
- **Hezkuntza herritik eta herriarentzat:** hezkuntzari ari garelarik, komunitatearen eta herriaren inplikazioa eta parte-hartzea bilatzen dituen filosofia da, hezkuntzaren eta errealitatearen arteko beharrezko lotura aldarrikatzen duen filosofia. “Izan ere, hezkuntza ez da ikastetxean gertatzen eta geratzen den zerbait soilik, baizik eta herri osoari eragiten dion zerbait”. Herri-ikastetxea-herria logika sustatzearen alde agertzen dira, herriaren, herritarren eta hezkuntzaren arteko lotura indartzeko xedez.

- **Nazio eta herri eraikuntza:** “Non gauden jakitun izan behar dugu, ez dituelako ezaugarri berak leku bakoiteko edo besteko hezkuntza sistemak. Euskal Herrian lurreratze jakin bat dauka hezkuntzak, Euskal Herriak bere ezaugarriak dituelako eta horren kontziente izan behar dugula uste dugu”, diote bi bozeramaileek. Euskal hezkuntza sistema Frantziako eta Espainiko hezkuntza sistemen mende dagoenez, euskal hezkuntza sistemaren eraikuntzak Euskal Herri askearen eraikuntzan lagunduko lukeela uste dute Ikamatik.

## Praktikarako ardatzak eta tresnak

Egoera ikusita, garbi dute hezkuntza burujabetza eskuratzea funtsezkoa dela, “egun herri gisa hezkuntzaz erabakitze eta berau antolatu eta kudeatzeko daukagun eskubidea ukatu egiten baitzaigu”, diote. Hezkuntza Burujabea izateak esan nahi du euskal herritarrok Euskal Herrian dauzkagun nahi eta behar errealean arabera hezkuntza egitasmoa zein den pentsatu, erabaki eta gauzatzeko ahalmena izatea.

Burujabetza hori lortzeko baldintzak desberdinak dira Ipar Euskal Herrian, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan, lurralde bakoitzean hezkuntzarekiko dauden eskumenak ere desberdinak direlarik. Horregatik, leku bakoitzean dagozkion urratsak eta proposamenak egitearen aldekoak dira, baina lurraldeen arteko elkarlana bultzatuz eta Euskal Herriko ikuspegi nazionala galdu gabe. “Azken helburua Euskal Herri osoa aintzat hartuko duen, lurraldearen luze zabalerako balioko duen eta kanpo injerentziarik izango ez duen Euskal Hezkuntza Sistema Propio bat eraikitzea delako”, Cuadraren esanetan.

Horretarako tenorea dela uste dute Ikamako kideek, “gaurtik eta lokaletik eraikiko dugu Euskal Eskola Herritar eta Burujabea, ikastetxeetan, institutuetan eta lanbide eskoletan erronkaz erronka jardunez”. Eginkizun nagusietako bat ikasleen baldintzak hobetzeko lan egitea izango da, ikasleria antolatzea, hezkuntza eraldatzea eta heziketa prozesu osoa duina izan dadin eredu berri baten alde aritzea elkarrekin.

Horretarako antolatu eta aurrera eramango dituzten dinamikak bi ardatzetan oinarrituko dituzte:

1. Eredu Propioaren Eraikuntza: aurrera eramango dituzten ekimenak eredu propioaren eraikuntzara bideratuta egongo dira. “Hau da, ez da nahikoa balio ez diguna salatzea, horrez gain behar duguna aldarrikatu behar

## GAIA: IKASLEAK MARTXAN DIRA

Ikama antolakundea sortu dute

dugu eta aldarrikapen horietatik gure behar errealei erantzungo dien praktika eta proiektu berriak sortu, sustatu eta garatzea dagokigu”, dio Cuadrak.

Ikasleen kontzientzia lantzeari ere garrantzia ematen diote, “inposatzen zaizkigun hezkuntza sistema eta ereduak ez digutelako herri eta herritar gisa ditugun nahi eta behar errealei erantzuten. Horren kontziente izan behar dugu ikasleok”. Eta horretarako, ikasle masa mobilizatzeraz joko dute.

2. Ikasle problematika eta hezkuntza eraldaketa: ikastetxe bakoitzeko errealitatea desberdina dela jakitun izanik, tokian tokiko arazoei irtenbideak edo planteamenduak tokitik bertatik egitea lehenesten dute. Ikastetxe, institutu eta lanbide eskola bakoitzak aurrera eramateko moduko dinamikak planteatzea, astiro-astiro aldaketa txikiak eginez. “Txikitik eraginez gauza handiak lortu daitezkeela uste dugu. Alegia, nork bere zentroan egiten dituen aldaketak Euskal Herriko gainerako ikastetxeetako kideekin partekatuz gero, eta guztiok norabide berean jardunez gero, eraldaketaren dimentsioa handitu egingo da”, azaltzen du Cuadrak. Esate baterako, ikastetxe edo institutu batean ikasleek ebaluazio irizpideek ikasleengan presioa sortzen dutela salatzen dutenean, ikasleak erdigunean jarriko

dituen beste ebaluazio eredu bat behar dela aldarrikatzen ari dira. Arazo jakin batetik, aldarrikapen orokor bat egiten ari dira. Gauza bera gertatzen da egungo sistemak sortzen dituen segregazioak salatzen dituztenean eta bestelako publikotasun bat aldarrikatzen dutenean, horrekin mota bateko edo besteko segregazioa pairatzen duten ikasleen baldintzak duintzeko aldarrikatzen dute.

“Gaurtik eta lokaletik hasita”, dinamiken esparrua norberaren ikastetxea izango da, ikasleen egoera duintzen saiatuko dira ikasleak, euren ahotsa entzun dezaten ahaleginduko dira, hezkuntza erdigunean jarriz eta hezkuntzaren zentroan ikasleak. Dagoeneko Euskal Herri osoko 70 ikastetxe, institutu eta lanbide eskoletan hasi dira ikasleak asanbladatan bildu eta ekintzak antolatzen. 370 ikasle inguru igo dira Ikamaren itsasontzira eta abiatu dira. Ikastetxeetako gatazkak azaleratuko dira, gaur egun ikasleen ahotsa ez delako aintzat hartzen: “Ez dugu parte hartzen gure hezkuntza ereduari buruz erabakiak hartzen diren guneetan eta hezkuntza komunitatean gure espazioa izan behar dugula uste dugu, zelako hezkuntza eredu nahi dugun irudikatzeko eta marrazteko”, Cuadraren esanetan.

*Borrokarako gida* izena jarri dioten tresnarekin hasi dira ikasturte honetan eta hori izango da ikasleek ikastetxeeta-



## GAIA: IKASLEAK MARTXAN DIRA



ko eta institutuetako dinamika bideratzeko erabiliko duten erreminta. “Ikastetxeetako gatazkak eta problematikak identifikatzen eta ikasturteko plangintzan diseinatzen lagunduko duen tresna da”, azaltzen du Gil de San Vicentek. Gidak zazpi ildo proposatzen ditu lantzeko: feminismoa, ikas baldintza duinak, pedagogia eredu, kontrol soziala eta helduen boterea, ingurumena, espazioaren antolaketa eta Euskal Herria. Zentro bakoitzak esparru horietako bakoitzean zein egoeratan dagoen jakin ahal izango du, eta ondoren, horren arabera dinamika planteatu. “Ildo guztiak landu beharrik ez dago, gida malgu da, eta ikastetxe bakoitzak erabakiko du zenbat landu, nahastuta edo banaka landu nahi dituen eta abar”.

Ikastetxe bakoitzeko egoeraz gaindik, orokorrean gaur egungo eredu agortuta ikusten dute zentzu guztietan: bai eduki aldetik, bai pedagogikoki, bai espazio aldetik... “Ondorioz, ikasleen artean ez dago ikasteko motibaziorik, ikastetxea kartzela bat da, eta hori aldatu nahi dugu”. Hezkuntza komunitate osoarekin eta herriarekin egin nahi dute eraldaketa, gogoz daude ikasleak, euren ahotsa entzuteko garaia da.

### Zer diote ikasleek COVID-19az?

Ezohiko ikasturte hasiera izan da, eta Ikamako kideek

buruan zituzten gaiei heldu aurretik egoerak eskatu duenari erantzun diote: hezkuntza komunitatearen grebarekin bat egin dute, Nafarroako eta Iparraldeko zenbait mobilizazioetan parte hartu dute eta, oro har, sindikatuen eta hezkuntza komunitateak egindako aldarrikapenak babestu dituzte, horietan ahots propioz eraginez. Bizi dugun egoera honetan ikasleek desinformazio handia dutela adierazi dute: “Estatu alarma egoera berrian, esate baterako, ezin dira sei pertsona baino gehiago bildu ez espazio publikoan ez pribatuan, baina ikastetxetan 30 pertsonako aglomerazioak egon daitezke. Hori zergatik ahalbidetzen duten jakin gabe jarraitzen dugu”, dio Cuadrak. “Gela asko konfinatuta daude, positiboak nonahi, ez dago ezer finkorik, irizpideak ere ez dira finkoak eta desinformazioa eta zoramena bizi ditugu. Bi hilabete eta erdi pasa dira ikasturtea hasi genuenetik, eta ia lehenengo egunean bezala jarraitzen dugu”. Orokorrean onartzen dute osasun neurriak beharrezkoak direla, baina osasun neurriekin batera neurri pedagogikoak falta izan direla uste dute: “Elkar zaintzarako, ikasteko eta elkarrekin erlazionatzeko neurriak ez da hartu. Momentu honetan muga batzuk jarri dizkigute, baina ez dute pentsatu muga horiekin nola erlazionatuko garen edota nola ikasiko dugu. Osasunaren aldeko neurriak dira, baina ez gure garapenerako neurriak. Jada aurretik ere bazegoen hutsune hori guztia orain areagotu egin da muga fisiko hauekin”.



“Eskolak ezin dio bizkarra  
eman bere ikasleen errealitate  
birtualari”

# ELKARRIZKETA:

# RAKEL GAMITO

## EHU-KO IKERLARIA ETA IRAKASLEA

---

Adingabeen Interneten erabilera-ohiturak eta online bizi dituzten egoera gatazkatsuak aztertu zituen doktore tesian eta bertan Lehen Hezkuntzako geletan Interneten erabilera arduratsua lantzeko prestakuntza-ekintza bat eskaini zuen Rakel Gamitok. Euskal Herriko Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza saileko irakaslea da eta Informazioaren eta Komunikazioaren

Teknologiak ikasgaia ematen du Gasteizko Hezkuntza Fakultatean. Hezkuntza-teknologia, gaitasun digitala, irakasleen prestakuntza eta genero ikuspegia dira haren lan-ildo nagusiak eta perspektiba horretatik martxotik ekainera bitartean ikastetxeak itxita egon diren garaian online egindako irakaskuntza esperientziaren balorazioa egiteko eskatu diogu.



**UEUren 2020-2021 ikasturte hasierako hitzaldia eskaintzea egokitu zitzaizun. Izenburuan zenion, 'Online irakatsi dugu ala online biziraun dugu?'. Spoiler bat eginez, aurreratuko dugu, online biziraun egin dugula esaten zenuela hitzaldian. Zein da diferentzia? Zer da benetako online irakaskuntza?**

Online irakaskuntzak baditu bere ezaugarri propioak. Hilabete hauetan aurrez aurreko betiko irakaskuntza eredu nolabait online pasatzen saiatu gara, ezohiko egoera bati erantzuteko, baina aurrez aurrekoa online eramatea ez da benetan online irakastea, aldaketa hori ez da online irakaskuntza.

Online irakaskuntza/ikaskuntza Internet bidez gauzatzen den hezkuntza-jarduera da, aurrez aurre egotea eskatzen ez duena. Hala ere, irakaslea eta ikasleak aurrez aurre ez egoteak ez du esan nahi irakaskuntza edukien transmisio hutsera mugatzen den ekintza bat izan behar denik edota ikaskuntza autoikaskuntza modura bideratu behar denik.

Online irakaskuntzaren/ikaskuntzaren gaitasunen garapena izan behar da eta, horretarako beharrezkoa da prozesuen alderdi sozialari erreparatzea. Aurrez aurre egon ez arren, interakzioa eta lankidetzaren irakas-

kuntzaren/ikaskuntzaren funtsezko osagaiak izan behar dira. Aurrean pantaila bat izan arren, komunikazioa gertukoa izan behar da eta momentu oro emozioek betetzen duten papera ulertu behar da.

Hala ere, kontuan izan behar da gela fisiko baten ezaugarriak eta ikasgela birtual baten ezaugarriak ez direla berdinak eta gauza bera gertatzen dela komunikazio-egoerekin edota ebaluazioarekin ere. Ez da gauza bera gelan aurrez aurre ahoz azalpen bat ematea edo ikasgela birtualerako enuntziatu bat prestatzea.

Horrek guztiak estrategia digital propioak eskatzen ditu eta, aldi berean, planifikazio lan handia. Irakaskuntza/ikaskuntza ondo diseinatu eta egituratu behar da eta, horretarako, denbora behar da. Gainera, jarraipenak ere berebiziko garrantzia du eta, horretarako ere, denbora behar da.

Baina iragan hilabeteetan ez dugu eduki hori guztia egiteko denborarik. Bat-batean, etxean geunden eta zerbait egin beharra geneukan, eta egin duguna betiko irakaskuntzaren nolabaiteko moldaketa txiki bat izan da. Baina ez dugu denborarik izan benetan online irakasteko.

**Dagoeneko hainbat ikasle konfinturik daude ikastetxe askotan, edo,**

**hemen, unibertsitatean eredu semipresentzialean ari zarete eskolak ematen. Beraz, une honetan, aldi berean eskolak aurrez aurre eta online ematen ari dira irakasleak. Baina zukesan duzunaren arabera, hori ere ez da bide egokia, ezta?**

Niretzat behintzat ez. Unibertsitateak eredu semipresentziala aukeratu du, astebetez ikasle talde bat gelan dago eta aldi berean, beste talde bat etxetik ari da eskolak jarraitzen, eta hurrengo astean alderantziz. Baina niretzat ez da bide egokia. Aurrez aurreko irakaskuntza eta online-irakaskuntza bi irakaskuntza mota desberdin dira eta irakaslea, bakarra. Azken finean, bi talde dituzu eta momentu berean bi talde horiek gidatzen ari zara, baina oso modu desberdinean ikasten ari diren bi talde dira. Bai irakaslearentzat eta bai ikasleentzat oso zaila da irakasgaia horrela jarraitzea, azalpenak emateko modua, jarduerak planteatzeko modua eta *feedback*-a jasotzeko modua oso desberdinak dira... Bi ereduak aldi berean bateratzea eta pertsona berak kudeatu beharra, niretzat, ia ezinezkoa da benetan ondo egin nahi badugu online irakaskuntza eta aurrez aurreko irakaskuntza. Bide horretatik, biek galduko dute.

**Gauden testuinguruan, nola baliatu**

### **beharko genituzke teknologiak ondo egiteko, edo, bederen, ahalik eta ondoen egiteko?**

Etapak bakoitza mundu bat da, ezin da, beraz, modu orokorrean hitz egin. Unibertsitateari begira, aukera bat da irakaskuntza modu semipresentzialan egitea, argi gelditu da ikasleek ere behar dutela aurrez aurreko irakaskuntza. Kontua da nola baliatu bi ereduak, eta nik, nire esperientziatik, beste modu batera antolatuko nuke eskola: ikasleekin gelan modu presentzian gaudenean, aurrez aurreko ikaskuntzaren alderdi onenei zukua aterako nieke, eskolak ahalik eta praktikoen egingo nituzke, elkarrekin hausnartzeko aprobeztatu nuke eta ikaskuntzaren alde esperientzial hori indartzeko. Eta, aldiz, ikasleak etxean dauden beste aste hori alde teorikoagoa indartzeko baliatuko nuke, eta ikasgela birtuala oso ongi azalduak dauden irakurgai eta jarduerekin prestatuko nuke, ikasleek ahalik eta modu autonomoenean antola dezaten euren lana; bideoak eta materialak eskainiko nizkieke, eta, era berean, etxean dauden aste hori, aurrez aurre elkarrekin egin duguna euren kabuz sakontzen joateko edo hurrengo astean gelan egingo duguna aurreratzen joateko baliatuko nuke. Metodo misto hori erabiliko nuke hausnarketa eta praktikotasuna ikaskuntza autonomoarekin uztartzeko. Dena den, horretara iristeko, ikaskuntza autonomia txikitatik sustatu beharko genuke ikasleekin, eta pixkanaka garatzen joan.

### **Lehen Hezkuntzan espezialista zara. Etapak horri begira, LHn hainbat ikasle etxean konfinatuak dituzten irakasleei zein jarraibide eman geniezazkieke IKTak hobeto erabiltzeko?**

Nire ustez etapa honetan zailagoa da teknologiek eskaini diezaguketena ondo baliatzea. LHko ikasleek behar handiagoa daukate gelak eskaintzen dien sozializatorako eta euren ikaskuntzaren oinarri handienetakoa taldea da. Etxean daudenean taldean ikastearen esperientzia galdu egiten dute, eta taldean bizitzeko aukera gabe gelditzen dira, adin horretan zaila baita taldea online formatuan indartzea. Etxean daudenekin bilera

bat egitea aproposa litzateke, gutxienez ikasleentzako elkarbizitza mantentzeko, baina argi izan behar dugu ikasleentzat ez dela gauza bera izango.

LHko ikasleak etxean daudenerako material esanguratsua prestatu beharko genuke, eta bereziki garrantzitsua iruditzen zait etxean dauden ikasleentzako jarraipena egitea, ez utzi materiala eman eta euren kabuz egin dezaten lan. Eta zehaztu behar da, jarraipena egitea ez da bidalitako fitxak bete dituen eta ondo bete dituen zuzentzeko jarraipena egitea, hori baino garrantzitsuagoa iruditzen zait etxean dagoen umea nola dagoen jarraipena egitea, eta ahal bada, momentu jakin batean gela osoarekin konektatzea interesgarria izan liteke, baliabideak baldin badaude. Adibidez, 20 minutuko bideo-dei bat egitea ez litzateke zaila izango.

### **Egun batetik bestera, ia bat-batean, haurrak eta irakasleak etxetik hasi ginen lanean. LHko lehen mailetan bereziki, eta Haur Hezkuntzan zer esanik ez, ez ote genuke haurrekin aurrean bat egin beharko pantailen aurrean jarri aurretik? Ba ote dakite aurrez aurreko komunikazioa eta online bereizten?**

Curriculumean badago komunikazio digitala, baina zeharkako moduan, eta denok dakigu zer gertatzen den zeharkako kompetentziekin eta edukiekin. Landu egin behar da online komunikazioa zer den, online elkarbizitza, online errespetua... eta hori modu praktikoan landu behar da haurrekin, kontua ez da txapa bat ematea. Gauza bera gertatzen da autonomiarekin ere: landu egin behar da; pasa gara umeak irakaslearen laguntzarekin gelan fitxa bat egiten edukizetik, eta ondoren denen artean zuzentzetik, bat-batean, fitxa emailez jaso eta euren kabuz eta bakarka egin behar izatera. Ikaragarriko heldutasuna eta ardura eskatu dizkiegu haurrei, ikaragarriko autonomia eskatu diegu, edukiak euren kabuz lantzeko gaitasuna edukitzeaz gain, denborak kontrolatzeko eta aldi berean beste gauza asko egiteko eskatu diegu onlinera pasa garenean... eta hori guztia ezin da bat-batean egin, gelan txiki-txikitik ikasketa-prozesu

“LHko ikasleak etxean daudenerako material esanguratsua prestatu beharko genuke, eta bereziki garrantzitsua iruditzen zait etxean dauden ikasleentzako jarraipena egitea, ez utzi materiala eman eta euren kabuz egin dezaten lan”

“Ez arriskuei buruz, ezta nortasun digitalari buruz ere ez da ezer aipatzen DBHko 3. mailako curriculumera arte. Eta 8-9 urterekin, dagoeneko, *chromebook* bat edo antzeko beste gailu bat ematen diegu eskolan erabiltzeko eta 11 urterekin ikasle askok, ez badira denek, mugikor propioa daukate”

“‘Like’ kopurua berdinen arteko onarpen-maila bezala ezarri da. Instagram inoiz erabili gabe hori ulertzea oso zaila da”



autonomo horrekin hasten ez bazara. Txiki-txikitatik asteko lanak kudeatzeko aukera ematen badiegu ikasleei, esate baterako, errazagoa izango da gero modu autonomoan lan egiteko gaitasuna edukitzea. Gauza bera gertatzen da online talde-lana egin nahi badugu edo komunikazioa bermatu nahi baldin badugu, txikitatik hori guztia landu egin behar da ikasleekin. Kontua da, horretarako, irakasleok formazioaz gain, denbora behar dugula. Arazoa da ez dugula eduki horretarako prestatzeko denborarik eta oraindik ere ez daukagula, egoerari ahal izan dugun moduan erantzuten aritu baikara eta ari baikara une honetan ere irakasleak, ikaragarritzko lana eginez.

**Konfinamenduaren aurretik, haurrei pantailak ahalik eta gutxien eskaintzen saiatu gara eta itxialdian eta hurrengo hilabeteetan, pantailen aurrean denbora luzez jarri genituen haurrak. LHko haurrak bereziki, baina baita helduagoak ere, pantailen aurrean jartzen ditugunean, seguru daude? Gaiaz tesia egin zenuen.**

Ez, ez daude seguru, eta pantailen aurreko segurtasuna kontuan hartzen

ez den beste gai garrantzitsu bat da. Nire tesiaren muina, hain zuzen ere hori da. Pantailen aurreko segurtasuna zaintzearen gaia, gainera, ez da curriculumean aipatu ere egiten. LHko curriculumean zeharka aipatzen da ikasleek IKTak modu seguruan erabiltzeko gaitasuna izan behar dutela, baina eduki zehatzetan ez da sartzen, ez arriskuei buruz, ezta nortasun digitalari buruz ere ez da ezer aipatzen DBHko 3. mailako curriculumera arte. Eta 8-9 urterekin, dagoeneko, *chromebook* bat edo antzeko beste gailu bat ematen diegu eskolan erabiltzeko, eta 11 urterekin ikasle askok, ez badira denek, mugikor propioa daukate. Beraz, 14 urterekin arriskuei buruzko lanketa bat egitea ez da bate-re baliagarria. Nire ustez, eta nire esperientziaren arabera, askoz lehenago egin behar da haurrekin lanketa bat, hitz egin behar da haurrek zer egiten duten Interneten, zertarako erabiltzen dituzten pantailak, zer-nolako bizipenak dituzten, zer gertatu daitekeen... hori guztia euren hizkuntzara eta euren hausnarketa gaitasunera egokituta azaldu behar zaie, modu praktikoan. Horri guztiari buruz hitz egin behar da, bai ala bai, eta eskolan ere bai.

Eskolak ezin dio bizkarra eman bere ikasleen errealtate birtuala. Kontua da pantailen erabileraren ordu kopuru handiena aisialdiari dagokiola, eskolatik kanpo dagoela, eta beraz, ez gara horretan sartzen.

Eskolako erabilerari dagokionez, segurutzat joko nuke; eskolan daudenean informazioa bilatzen dute Interneten edo talde-lanerako erabiltzen dute ordenagailua, baina beti kontrol baten barruan egiten dute, irakaslea dago ikasleen pantailak begiratzen, eskolak baditu bere filtroak eta bere segurtasun kontuak. Gero, ordea, kalera edo etxera doaz eta erabileraren oso intimoa egiten uzten dien gailu mugikor bat daukate 11 urtetik gorako gaztetxo ia gehienek.

**Eta nola egin beharko genuke lanketa hori? Espezialista batek joan beharko luke ikastetxera tailer bat egitera ala irakasleek egin behar dute?**

Oso zaila da horri erantzutea. Egokiena irakasleek euren ikasleen errealtate birtuala ezagutzea litzateke eta inolako arazorik gabe gelan horri buruz hitz egiteko prest egotea.

**Irakasleez ari zarenean, tutoreaz ari zara edo orokorrean?**

Orokorrean. Ingeleseko orduan hasten badira hitz egiten ez dakit zer taldetan irudi batzuk bidaltzen ari direlako, irakasleak, beldurtu beharrean, eskuak burura eramane beharrean eta korrika zuzendaritzara joane beharrean, gaiari heldu beharko lioke, “aizu, hau da nire ikasleen errealtatea, eta galdetuko diet gaiaz”. Ikasleek eurek gertatzen ari denaz hausnartzeko moduko galderak egin behar dizkiegu: “Zergatik bidaltzen dituzue irudi horiek? Zer sentitzen duzue irudi horiek jasotzean? Zein da zuen erantzuna? Eta zein izan beharko litzateke zuen jarrera?”. Hortik tiraka, errealtate hori pixka bat gehiago ezagutzea lortuko genuke eta eurei euren errealtateaz hausnartzeko eta hortik mezu bat ateratzeko aukera eskainiko genieke. “Jasotzen ditugun mezuak ez baldin bazaizkigu gustatzen, agian kate hori moztu egin behar dugu, edo salatu egin behar dugu edo talde horretatik atera egin behar dugu eta heldu batengana joan

behar dugu laguntza eskatzera”. Hori guztia atera behar dugu galderen bitartez. Baina hori egin beharrean, beste aldera begiratzen dugu, helduoi beldurra ematen digulako errealtate horrek. Zergatik? Hasteko, ez dugulako ezagutzen eta ez dugulako kontrolatzen. Ondorioz, eskuak burura eraman eta korrika zuzendariarengana joaten gara, eta haren erantzuna askotan gurasoei abisatzea edo zigorren bat ezartzea izaten da, egoeraren arabera. Horrekin zer lortzen dugu?

Behin ikastetxe batean Interneteko segurtasunaren inguruko lanketa bat egiten ari ginela, 5. mailako neska batek esan zidan ezezagun batek Instagrametik mezuak bidaltzen zizkiola: “¿Qué llevas puesto hoy? Tengo aquí algo duro para ti”... Maila horretako bizpahiru mezu jaso zituenean beldurtu egin zela kontatu zidan. Ni egun batean joan nintzen eskolara, eta gelakide guztien aurrean kontatu egin zidan. Kontua da ni gaiaz hitz egitera, entzuteko prest eta interesarekin sartu nintzela gelara, eta jarrera horrekin zoazenean, LHko haurrak hitz egiteko prest agertzen dira. Orduan nik neska horri galdetu nion ea zer egin zuen, 10-11 urterekin gurasoengana joko zuela pentsatu nuen, baina berak esan zidan ahizpari laguntza eskatu ziola erabiltzaile hori blokeatu eta mezu gehiago ez jasotzeko. Gurasoei esan ote zien galdetu nion; “ez, ze amatxori kontatzen badiot haserretuko da eta mobila kenduko dit”, erantzun zidan. Neska horrek, ordea, ez zuen okerreko ezer egin, izatekotan biktima zen bera.

Helduok gure erantzunak neurtu egin behar ditugu eta, batez ere, gaiaz hitz egiteko beldurra kendu behar dugu. Beste adin batzuetan eta beste maila batzuetan agian zailagoa da, baina Lehen Hezkuntzan oso gai gara haurrei laguntzeko, bai irakasleak eta bai gurasoak. Azken batean, mundu birtualean ematen diren arriskuen eta egoeren oinarrian pertsonak eta pertsonen asmo txarrak daude, eta horri buruz helduok badakigu, zoritxarrez. Badugu esperientzia hori eta badakigu noraino iritsi daitekeen pertsona bat eta zer-nolako mina egin dezakeen, eta min hori saihesteko zer-nolako estrategiak behar ditugun

ere badakigu eta badakigu, baita ere, nola indartu behar dugun, adibidez, gure autoestimua min hori saihesteko. Horretan guztian berdin-berdin da aurrez aurreko bizitzan eta online bizitzan.

#### **Baina diferentzia handi bat dago: online bizitzan helduok ez ditugu gailuak hainbeste ezagutzen.**

Zaila da haurrei elkarbizitzen erakustea euren testuingurua ezagutzen ez badugu, baina gidalerro batzuen laguntza eskaini dezakegu, eta laguntza baino gehiago, senti dezakete gertu gaudela, eta arazoren bat izanez gero, hor gaudela eta etor daitezkeela guregana. Zeren guri berdin digu Instagram, TikTok edo bihar aterako den aplikazio bat izan, gure ikasleak mehatxuak jasotzen ari dela esaten badigu, guregana etortzeko konfiantza baldin badauka, berdin dio mehatxu horiek zein tresnaren bidez jasotzen dituen, baina martxan jarriko gara eta hitz egingo dugu hitz egin behar denarekin.

Askoz errazagoa da tresna ezagutzen badugu, era horretan, behintzat, ulertuko dugulako tresna horrek zer sentiarazten dion haurrari. Nik askotan egiten ditut lanketak gurasoekin, eta hitz egiten dugu Instagrami buruz eta Instagramek daukan indarrak. Heldu askok ez dute ulertzen adin txikikoentzako zeinen garrantzitsua den Instagramen argazki bat argitaratzen dutenean *like*-ak jasotzea, eurentzako munduan dagoen gauzarik garrantzitsuena da. *Like* kopurua berdinen arteko onarpen-maila bezala ezarri da. Instagram inoiz erabili gabe hori ulertzea oso zaila da. Nik erabiltzen dut Instagram; heldua naiz eta ez zait eguna aldatzen 10 edo 60 *like* jasotzeagatik, baina aizu, 60 *like* jasotzen ditudanean gustatzen zait. Hori heldu bezala gertatzen bazait, ulertzen dut 11 urterekin gertatzen denean senti dezaketena, momentu horretan berdinen artean onartua izatea eta berdinei gustatzea ezinbesteko baldintza baita. Orain, ez baduzu hori inoiz bizi izan, zaila egingo zaizu zure ikaslea edo seme-alaba ulertzea.

**Eskolak ezin du, beraz, esan, “hori beste mundu bat da” eta ikasleak alor**

“Asko zentratu gara baliabideetan, etxe askotan ez dagoelako baliabide teknologikorik. Baina arrakala hori baino gehiago da: etxean jarraipenik eta laguntzarik jaso ez duten ikasleak izan ditugu”

“Ikaskuntza ikasle bakoitzaren erritmora egokitzeko abantaila handiak eskaintzen dizkigu teknologiak edota ikasketa behar bereziak dituztenei erantzuteko baliabide eta proposamen ugari”

“Eskolak software librearen aldeko filosofia indartsu bat izan beharko luke, nire ustez, hezkuntzaren oinarriak eta software librearen oinarriak bat datozelako”



### horretan hezi gabe utzi?

Irakasleok —eta gurasoek— ez baditugu hezten haurrak eta nerabeak eurentzat hain inportantea den errealtate horretarako, beste batzuek heziko dituzte gure orde. Gure ikasleak Youtuben daude eta youtuber horiek euren eredu dira eta kopiatu egiten dituzte. Helduak ez gara oso kontziente haurrak youtuberren bitartez zein eredu ari diren kontsumitzen.

Denok eduki ditugu ereduak haur edo nerabe izan garenean, baina garai batean gutxiago ziren eta eredu horiek gehiago kontrolatzen genituen. Beti adibide bera jartzen dut: 12 urterekin Spice Girls ziren nire eredu, baina nire amak bazekien nortzuk ziren eta kontrola zitzakeen Spice Girls kontsumitzeko nituen bide guztiak —CDa etengabe, tarteka telebista eta aldizkariren bat—. Gainera, tarteka, nire ondora etorri eta esaten zidan, “aizu, hauek ez daude beti hain guapa e!”; “Koreografia egiten dutenean oso zoriontsuak dira, baina bizitza ez da beti horrelakoa”. Baina gaur egun Youtubeko ereduak kontsumoa hain da altua, hain da ezberdina eta, gainera, hain individuala, kontrolatzea zaila dela helduontzako. Oso tarteka

galdetu diezaiekegu ea ze youtuber ikusten duten, edo ondoan jarri eta komentatu zerbait. Eurentzako eredu dira, eta hori kopiatzen saiatzen dira.

### Hortaz, gailuak kontrolatzen tematu beharrean, ikasleekiko konfiantza lantzen saiatu beharko guke gehiago?

Bai, edo bestela, galduta gaude. Guretzako garrantzitsuak direla sentitzeko beharra daukate gure ikasleek, eta egiten dutena guretzat ere interesgarria dela ikusi nahi dute. Fortniten nola jolasten den galdetzen badiozu, oso gustura azalduko dizuz; gustatu egiten zaie helduei euren intereseko gauzak azaltzea. Baina helduok ez dugu galdetzen, ez dakit beldurragatik den; denbora faltagatik den; interes faltagatik den... Ikusten dugu hori euren mundua dela baina gurea ez... baina, aldi berean, gure adin txikikoen mundua gurea izan beharko litzateke.

**'Fortnite' aipatu duzu eta gauza bera gertatzen da hainbat youtuberrekin, haurrentzat nahi ez ditugun balioak zabaltzen dituzte. Zerbait ona atera genezake haur eta nerabeek kontsumitzen duten online mundutik?**

Badago bai. Pantailen bitartez harremanetan ari dira jendearekin, eta hori beti da aberasgarria, ez badago asmo txarrik behintzat bai. Jolasten aritzeak, nahiz eta edukia ez izan hoberena, kognitiboki aktibo mantentzen ditu, jolastea ariketa kognitibo bat baita, etengabe estrategiak pentsatzen ari dira, azkar pentsatzen ohitzen dira... Alde horretatik ez ditugu jolasak X batekin ezabatu behar. Fortnite, adibidez, adiktibo dela esaten dute, baina jolas guztiak dira, berez, adiktiboak. Oso ondo egina dagoen jolasa da, grafikoki ere oso indartsua da, baina edukia eta mezua gogorak dira, “denak hil behar dira”. Arazo handia izaten ari dena da oso ume txikiak ari direla eurentzako pentsatua ez dagoen joko honetan jokatzeko, ez baitira gai jokoak sortzen dituen emozioak kudeatzeko.

**Itxialdian gertatu zen: eskolak jasotzeko pantaila aurrean jarri genituen haurrak; gero, pantaila aurrean egin beharreko etxeko lanak izaten zituzten askok, eta ondoren, lagunekin erlazionatzeko, berriro ere, pantaila-tara jotzen zuten... Badago estipulatu zenbat ordu diren osasuntsu eta zenbat bilaka daitezkeen osasunarentzako kaltegarri?**

Ebidentziak jasotzeko beharrik gabe esan genezake haurrek pantaila aurrean pasatzen duten ordu kopurua igo egin dela. Baina, era berean, ez nuke alarma joko. Oso egoera bitxia bizi izan dugu, entzerratuta egon dira etxean umeak! Gakoa izango da gure errealtatea berreskuratzen dugunean ea hainbeste pantaila kontsumitzen jarraitzen dugun ala ez.

**Irakasleek eurek nabarmendu duten beste ahulgune bat zera izan da, itxialdi garaian eta teknologia berrien bidez, klase magistraletara itzuli garela. Edukiei garrantzi itzela eman zaie eta aspaldian baztertuta zituzten askok ere fitxak bidali dizkiete ikasleei**

Bai, hala izan da. Eskola magistraltara eta fitxetara bueltatuta urtetako diskurtso praktiko-esanguratsu eta esperientzial hori guztia galdu egin dugu bidean. Zergatik? Hasteko, formakuntza faltagatik, online-lan ohitu-

ren faltagatik eta material faltagatik. Jardueraz gain, estrategiak falta izan zaizkigu. Gure ikasgelan, aurrez aurre, ikasleen parte-hartzea bultzatzeko estrategiak eta jarduerak prestatuak ditugu, baina eztabaida bat sustatzeko estrategiak ere, edo taldeka lan egiteko... Baina hori guztia onlinea eramatean, ez dugu asmatu, onlineak oso ezaugarri bereziak dituelako eta beste estrategia batzuk behar direlako. Jakin behar dugu, esate baterako, onlineko eztabaida baterako zer den egokiagoa, zuzeneko saio bat, foro bat edo anonimoki erantzuteko aukera ematen duen tresnaren bat... Ez dakigu, ez baitugu aurrez inoiz egin, eta ez dugu horri buruz hitz egin eta irakasle bezala ez dugu horri buruz hausnartu. Kaos horretan zer dakigu egiten online? Bada txapa bota. Eta hori egin dugu.

**Irakasle bakoitzaren lana izan behar-ko litzateke, une honetan, online-eszenatokiko materiala, estrategiak eta baliabideak prestatzea? Ez ote dago materiala biltzerik eta irakasleen lana modu kooperatiboagoan sustatzerik?**

Bai, egon beharko luke. Irakasle asko ari dira materiala sortzen eta, gainera, sortzen dutena partekatzen. Baina bakoitzak gaitasuna eduki behar du material hori guztia bilatzeko, aurkitzen duenarekin kritiko izateko... Internetek daukan gauza on bezain txarra da dena dela asko. Eta informazio hori guztia kudeatzea oso zaila dela. Estrategia bat izan daiteke zentroka lan egitea. Eskola batean sortzen den materiala, esate baterako, arduradun batek filtratzea eta nonbait eskuragarri jartzea eta irizpide zehatz batekin sailkatzea. Lanak bana ditzakegu, eta eskolan ez badago denborarik zerbait sortzeko, edo gaitasun digitala mugatua bada, beste aukera bat izan daiteke beste eskoletan zertan ari diren ikustea, edo sarean zein baliabide dauden bilatzea... Baina, une honetan, horrela lan egitea amets bat da.

**Hitzaldian esaten zenuen, ohiko irakaskuntza kolokan jarri duela itxialdiak. Hainbestera izan al da? Maila batean bai. Kolokan jartzeak eskatzen digu esertzea, hausnartzea eta hobetzen saiatzea. Gaitasun digi-**

talari begira, batez ere kolokan jarri gaitu pertsona bezala, ikasle bezala, irakasle bezala... Uste genuen oso digitalak ginela, baina argi geratu da ezetz.

Beste alde batetik, esaten dugu ikasleen autonomia eta hausnarketa kritikoa defendatzen ditugula, baina kasu askotan ikusi da hutsuneak ditugula. Ikusi dugu zeinen garrantziak diren, baina ere, emozioak eta emozioen kudeaketa. Emozioek lekua behar dute eskolan. Kolokan jartzeaz ari naizenean, horri buruz ari naiz. Ez dut esaten eskola gaizki ari denik, eskola ahal duena egiten ari da eta ahalik eta ondoen, baina ahulguneak ikusi dira eta hortik ikasteko baliagarri izan behar du bizi izan dugun esperientziak.

**Inklusioa, berdintasuna... teknologiek lagundu dezakete eskola hobetzen?**

Bai, inklusioaren kasuan aukera pila bat daude. Ikaskuntza ikasle bakoitzaren erritmora egokitzeko abantaila handiak eskaintzen dizkigu teknologiak edota ikasketa behar bereziak dituztenei erantzuteko baliabide eta proposamen ugari. Adibiderik sinpleena da ikusmen arazoak dituen ikasleari testuko letra handitu ahal diogula, edo kontrastea aldatu, irakurketa errazteko. Zertxobait sakonduz gero, konturatu gara, besteak beste, autismoa duten ikasleekin komunikatzeko tabletek zer-nolako aukerak eskaintzen dituzten.

**Arrakala digitala ere agerian gelditu da. Haur askok ez daukate aski baliabide teknologikorik etxean.**

Egia da arrakala digitala dagoela eta horrekin kontuz ibili behar gara, alde handia dago ikasleen artean, teknologiaren eta gaitasun digitalen parte handi bat etxean egiten da, eta etxean ez baldin badaukazu baliabiderik, hankamotz gelditzen zara. Eskolak hori aintzat hartu beharko luke, eta kudeatzen saiatu.

Asko zentratu gara baliabideetan, etxe askotan ez dagoelako baliabide teknologikorik. Baina arrakala hori baino gehiago da: etxean laguntza eduki duten ikasleak izan ditugu, eta jarraipena eduki dutenak, baina eduki ditugu, baina ere, jarraipenik eta la-

guntzarik jaso ez duten ikasleak. Izan daiteke gurasoek ez dutelako menperatzen hizkuntza, edo ez dutelako menperatzen edukia edo ez direlako etxean egon, lanean aritu direlako. Berdintasunari eta inklusioari buruz ari garenean, oso kontuan izan behar ditugu tresnak, baliabide teknologikoak behar dira eta horri erantzun zaio neurri handi batean, baina beste hutsunea ere oso handia izan da. Kontuan izan behar da, baina ere, etxe askotan norbait gaixo egon dela eta horrek baldintzatu egin duela ikasleen errendimendua. Nola erantzun zaio horri guztiari? Arretarik jarri al diogu egoera horri? Humanismo hori galdu egin dugu, abiadura handiegian goaz eta askotan ahaztu egiten zaigu ikasleak ere pertsonak direla, bizitza dutela eta, batez ere, horrelako egoera batean oso kontuan izan beharko genuke puntu hori. Ikasleekin konektatzen garenean, zergatik ez hasi elkarrizketa zer moduz dauden galde-tuz? “Zer moduz familia? Zer moduz daramazue etxean egotea? Zerk kezkatzen zaituzte?”. Gehiegi zentratu gara edukietan eta ebaluazioan.

**Eta hausnartu al dugu nahikoa itxialdian zehar eta, orain ere, zenbat informazio eman diegun Google bezalako talde handiei eta horrek zer ondorio izan ditzakeen?**

Dena eman diegu, eta horrek zer pentsatua eman beharko liguke, baina iritsi dira iraila eta urria eta abiadura azkarregian goaz gaiari buruz gelditu eta hausnartzeko. Googlek oso baliabide sinpleak sortzen asmatu du, itxuraz oso antzekoak direnak, eta ondorioz, tresna batekin trebatzen zarenean besteak erabiltzea oso erraza egiten zaizu. Eta hori, bizi dugun kaos honetan laguntza handia da. Baina pentsatu behar dugu zer dagoen horren atzean, eta ez dugu pentsatzen, eta tresna hartu egiten dugu. Are gehiago, orain Eusko Jaurlaritzak babesten du tresna hori. Eskolak software librearen aldeko filosofia indartsu bat izan beharko luke, nire ustez, hezkuntzaren oinarriak eta software librearen oinarriak bat datozelako. Software librearen oinarriak eta tresnak bilatu egin behar dira, ez datoz munstroak bezala gure etxera barruraino.

# ESPERIENTZIAK

URRETXINDORRA IKASTOLA

## Oztopo guztien gainera eta protokolo guztien azpitik, ildo pedagogikoari eutsiz

Bilboko Urretxindorra ikastolan 2018-2019 ikasturtean marko pedagogikoa eraberritu zuten Errotik proiektua martxan jarri, eta horrek ekarri zuen ikastolako espazioak irekitzea, denbora beste era batera antolatzea eta haurrei begiratzeko modua aldatzea. Ikasturte honetan, COVID-19ari aurre egiteko neurriak ezarri direnean, proiektua bere horretan aurrera eramateko zailtasunekin topatu dira. Ez dute, ordea, proiektua bertan behera utzi; egokitu eta eutsi egin diote. Zer eta nola egiten duten kontatu diote Hik Hasiri.

**E**zjakintasuna eta ziurgabetasuna izan dira uztailaz geroztik bizi izan dituztenak: informazio falta, uztailean agindu bat, abuztuaren amaieran beste bat, urduritasuna, kontraesanak eta erantzunik gabeko galdera ugari: “Nola ez dut urtebeteko ume bat altzoan hartuko? Hori pentsaezina da guretzat”; “musukatzen egon dira eta ezin da musukatu’ esan digute ikasleek. Lehen elkarbanatzeko eta partekatze erakusten zitzairen eta orain kontrakoa?”; “ikasleek taldeka lan egin dezakete? Eta mahaiak mugitu ditzakegu?”; “nola egongo da 6 urteko ume bat lau-bost ordu jezarrita?”; “lau aldiz aldatu genituen espazioak gela barruan”; “gu metroa hartu eta gela lau espaziotan banatzen aritu ginen”; “negar egiten baldin badu hartuko duzu? galdetzen ziguten gurasoek”; “ezjakintasun handia egon da, egunero Eusko Jaurlaritzakoei entzuten egon gara”; “erabaki asko oso denbora laburrean hartu behar izan dira, ongi edo txarto



Errotik proiektuarekin hormak bota eta espazio zabalak antolatu zituzten (Argazkia: Aitor Estevez Olaizola).

zeuden jakin gabe”; “orain seguruago gaude, ez seguruago COVID-19agatik, baizik eta badakigulako zer egin dezakegun eta zer ez”. Urretxindorra ikastolako irakasleen bizipenak izan dira eta Juan Zulueta zuzendari pedagogikoak ongi laburbiltzen du: “Irakasleek arkitekturako, ingenierritzako eta ez dakit zenbat arlotako

masterrak egin dituzte”.

Zurrumbilo betean egon dira azken hilabeetan 1.000 ikaslelik gora dituen Urretxindorra ikastolan. Urtebetetik 18 urtera bitarteko ikasleak biltzen dira Bilboko San Adrian eta Miribilla auzoen artean kokatuta dagoen ikastola honetan. Duela hiru ikasturte jarri zuten martxan Errotik proiektu-

tua eta argi zuten, egoerak egoera, proiektuari eutsi egingo ziotela. Jon Ander Gorostiaga LH1eko irakasleak hala dio: “Eskatu zaizkigun neurrien aurrean errazena proiektua bertan behera utzi eta lehen bezala irakas-tera pasatzea izango zen: burbuilak egin gelaka, ikasleak banaka jezarri, 1,5 metroko distantziarekin eta guk eskola magistralak eman arbelean idatziz. Hori eginez gero, oso erraza izango zen egoera berrira egokitzea. Baina guk ez genuen hori egin nahi. Bi gauzak egin nahi genituen: segurtasuna mantendu eta gure Errotik proiektuarekin jarraitu”.

Errotik proiektua hainbat iturritatik edanda osatu duten marko pedagogikoa da: konfiantzaren pedagogiaren oinarriekin, Euskal Herriko Ikastolen Elkarrekin antolatutako formazio saioekin, Urretxindorrako irakasleek egindako formazio pertsonalarekin (Montessori, Waldorf, Pikler...) eta barne hausnarketekin. Duela hiru urte abiatu zuten Haur Hezkuntzan eta une honetan Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailan daukaten Kimu proiektuarekin lotzen da. Lehen Hezkuntzako 2. zikloan eta Bigarren Hezkuntzako Eki proiektua lantzen dute. Errotik proiektuak eraldaketa ekarri zuen ikastolako beheko etapetara. Garikoitz Gainza HHko hezitzaileak eta proiektuaren koordinatzaile izan zenak batez ere hiru aldaketa azpimarratzen ditu: umeari begiratzeko modua, espazioaren diseinu aldaketa eta denboraren antolaketa berria. “Hasteko, haurrei beste modu batera begiratzen diegu orain; lehen irakaslea zen dena zekiena eta umeei erakusten ziena. Ez ziren aintzat hartzen umeei aurretik zituzten esperientziak, bizipenak, ezagutzak... Orain, irakasle baino gehiago bidelagun gara. Umeei autonomia ganoraz garatzea nahi dugu, umeen beharrak asetzea, esperimentaziorako duten gogoia garatzen laguntzea... Eta horrek aldaketa arkitektonikoa eta denboraren beste kudeaketa bat eskatzen ditu”.

Eraldaketa arkitektonikoa da proiektuaren zutabeetako bat: espazioak zabaltzeko zutuzten, gelak ireki, hormak bota, zirkulazio librea ahalbidetu, hiru dimentsiotako egitu-



Ikasturte honetan burbuilak egiteko altzari zaharrak atera eta espazioa mugatu egin behar izan dute.

rak jarri, mugimendurako espazioak eskaini, lasai egoteko espazioak ere bai...

Denboraren antolaketa da beste zutabeetako bat: ongi etorri edo sarrera malgua egiten dute, erritmo zirkadianoei jarraitzen diete, saio zuzenduak oso laburrak izan ohi dira eta abar.

#### Protokoloak sortutako oztupoak

Burbuilak egin beharrak hori dena hankaz gora jarri die. Errotik proiektuaren oinarri batzuk ezin dituzte aurrera eramane. “Oztoporik nagusienetako bat izan da familiekin genuen harremana eten egin dela modu batean edo bestean”, dio Gainzak. “Hau da, familiak barrura sartzen ziren egunero, gelara, seme-alabei berokia eta oinetakoak erantzten laguntzen zieten, eta hori egin bitartean gu haiekin geunden informazioa transmititzen eta partekatzen”. Juan Zulueta zuzendari pedagogikoak gehitzen du, jarduerak gurasoekin hasten zizutela puzzle bat eginez, liburu bat irakurri... “Eta orain, ezin direnez ikastola barrura sartu, harreman hori galdu egin da pixka bat”.

Horrez gain, burbuilak gelaka antolatu dituztenez, beraien arteko erlazioak mugatu egin dira eta adin desberdinen artekoak ere bai. Taldeak nahastan ez direnez, ezin dituzte proiektuak edo lanak denek elkarrekin egin. Orain hezitzaile bakarrekin egon behar dute eta lehen bi

edo hirurekin erlazionatzeko aukera zuten; beraz, erreferenteak murriztu zaizkie umeei. Lehen gela askotan zehar askatasunez mugitzeko aukera zuten; orain bakoitzak bere gelan egon behar du.

“Ezin gara denok elkartu, baina gelan zer eta nola antolatu dezakegu? Hori izan zen geure buruari egin genion galdera. Nola lortu dezakegu egoera honetan konfiantza ematea, autonomia garatzea, material manipulatioa erabiltzea, bizipenak

**"Eskatu zaizkigun neurrien aurrean errazena proiektua bertan behera utzi eta eskola magistraletara bueltatzea zen. Baina guk ez genuen hori egin nahi. Bi gauzak nahi genituen: segurtasuna mantendu eta gure Errotik proiektuarekin jarraitu"**

Jon Ander Gorostiaga  
LH 1eko irakaslea

### "Errotik proiektua Mini-errotik bihurtu dugu. Lehen espazio handiagoetan egiten genuena orain gelako espazioan egiten dugu"

Garikoitz Gainza  
Errotik-en koordinatzailea

eskaintzea...?". Bazekiten gauza asko ezingo zituztela egin, baina ahalik eta ezaugarri gehien mantentzen saiatu dira. Alde batetik, araudiaren zirrikietuz baliatu dira: "Dekretuak esaten du gurasoak ezin izango direla ikastetxeetara sartu egoera berezi bat ez baldin bada. Guretzat, egokitzapena egoera berezia da; beraz, egokitzapenean gurasoak ikastolara sartu dira", azaltzen du Gainzak. Talde txikitan egin dute, hogeinaka sartu ordez bost edo seinaka; ordutegia zehaztuta eta mailakatuta, taldeak zehaztuta, bartzuek alde egindakoan desinfektatuz eta abar, baina sartu, sartu dira. "Egin dugun beste gauza bat egokitzapena hedatzea izan da; hau da, normalean 2 urteko gelan egiten dugu eta 3 urtekoan zerbait. Aurten 4 eta 5 urteko gelan ere egin dugu, azken batean sei hilabetez egon direlako ikastolara etorri barik eta beharrezkoa ikusten genuelako patxadaz eta lasai-lasai erakustea umeei funtzionamendu berria".

#### Errotik-etik Mini-errotik-era

Aldaketa horiez gain, beste egokitzapen nagusi bat egin dute: handian pentsatutakoa txikira ekarri. Hau da, Errotik proiektua Mini-errotik bihurtu. "Lehen espazio handiagoetan egiten genuena orain gelako espazioan egiten dugu" azaltzen du Errotik proiektuaren koordinatzaileak. "Esate baterako, espazio handian hiru azpi-espazio genituen: bat plastikara bideratua, bestea hizkuntzara eta hirugarrena jolas sinbolikora. Orain, hiru espazio horiek gela barruan sartu ditugu, gela bakoitzak ditu hirurak.

Noski, neurritz txikiagoak dira, baina behintzat mantendu egin ditugu".

**Haur Hezkuntzako 1. zikloan** urtebeteko haurrak eta bi urtekoak daude. Urtebeteko haur guztiak burbuila berean sartu dituzte —21 guztira— eta gela horretan dituzte komunak eta jangela. Harrera gune bat jarri dute gurasoentzat. "Taldea txikitan sartzen dira umeei oinetakoak erantzten laguntzera, agenda betetzera eta lasai agurtzera", dio Irati Garcia hezitzaileak. "Psikomotrizitate gela galdu dugu, eta ongi zetorkigun beti lau hormen artean ez egoteko, aldatzeko, mugitzeko...". Urtebeteko umeak berriak dira ikastolan, eta gurasoek ate irekietan ikusi zutena eta irailan ikusi dutena desberdina izan da; orain dena altzariz beteta ikusi dute, labirinto baten itxura hartu du gelak. "Horrek kezka sortu zien hasieran: nola egingo dituzue proiektuak? Zirkulazio librea egongo da? Galdera pila bat zituzten. Orain, ikusi dute daukagun espaziora egokituta gauzak egin ditzakegula eta lasaiago daude".

2 urteko haurrek lau gela dituzte, bakoitza 18-19 hurrekoa, eta lau burbuila egin dituzte. Lehen denak espazio handi batean ibiltzen ziren eta orain espazio hori bost zatitan banatu dute: lau espazio umeentzat eta bat harrerarako. Gainzak dio garrantzitsua iruditzen zitzaizela harrerarako lekua izatea: "Horrekin leku gutxiago dugu umeentzat, baina gurasoak sartzearekin beste gauza ba-

tzuk irabazten ditugu". 2 urteko gelan hiru dimentsiotako egitura bakarra dagoenez, taldeak errotatu egiten dira denak egitura hori duen espaziotik pasa daitezten. Gure helburua lau burbuilatatik bi burbuilatara pasatzea da".

Hezitzaileei kosta egin zaie 2 urteko umeei ulertaraztea zergatik ezin duten lagun-minarekin egon, zergatik ezin duten gaztelura joan iaz nahi zutenean joaten baldin baziren, zergatik ezin duten euren eremutik atera, zergatik ezin duten komunera joan beharra dutenean...

**Haur Hezkuntzako 2. zikloan** espazioa izugarri aldatu da. "Horma guztiak botata eta espazio zabalak eta handiak antolatuta genituen", kontatzen du Itxasne Iruretagoiena HH5eko hezitzaileak. "Lehendabiziko lana altzari eta armairu zaharrak atera eta espazio txikiagoak antolatzea izan da". Horrek, noski, mugikortasuna mugatu die haurrei: "Lehen batetik bestera mugitzeko askatasuna zuten, orain bakoitza bere hezitzaile-erreferentearekin egon behar da gelan. Faltan botatzen dugu hezitzaile-erreferente gehiago izatea". Maila bakoitzean hiru gela daude, 25 ume ingurukoak, guztira 75. Horiek denak elkarrekin egiten zituzten proiektuak iaz: "Orain bakoitzak bere gelan egiten ditu. Horregatik, lehen denentzat zeuden hiru espazioak (plastikarako, matematikarako eta hizkuntzarako) orain gela bakoitzean sortu ditugu".



2 urteko haurren espazio zabalean lau gela edo burbuila sortu dituzte. Lehen ez zeuden erdiko armairuak.

Antzekoa egin dute Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan, egokitu, baina esentzia mantenduz. Hori bai, bakoitzak bere gelan egin behar duenez bere jarduna eta materiala ezin dutenez partekatu, hirukoiztu egin behar izan dute: gela guztietan egon behar dira kartak, bingoa, hizkuntza txartelak... Hori kudeatzea izan da oztopoetako bat.

Jarduerak egokitzea izan da beste zeregin bat. Jon Ander Gorostiaga 1. mailako irakasleak kontatzen du proiektu baten egokitzapena nola egin duten: “1. mailan erronka bat ikastola ezagutzea izaten da, batetik bestera ibiliz, ikasleak esploratzaile bihurtuta. Aurten ikastolako hainbat gela eta txokoren argazkiak eta bideoak prestatu ditugu eta jolasak planteatu ditugu horiekkin. Adibidez, musika gelaren argazkia erakutsi, hamar segundotan ikusi eta gero argazkian agertzen ziren instrumentuak gogoratu behar dituzte. Beste bat irakasleena izan da: ezin dituzte irakasleak ezagutu gelaz gela joanez. Orduan, irakasleen argazkiak egin ditugu, ikasleei deskripzioak egin dizkiegu eta haien izena dagokion argazkiaren gaineran jarri dute”.

Igartzen dutena da haurrek mugimendua behar dutela. “Metodologia honek jolas asko eta mugimenduko ekintza asko dakartza, eta lehen espazio zabalagoetan egiten genuena orain espazio bakar batean egiten dugunez, horrek mugimendua murriztu die”, dio Marga Bilbao 2. mailako irakasleak. “Zorionez, guk gela batzuk hutsik ditugu eta tarteka hara joaten gara jolasak edo mugimenduko ekintzak egitera”.

### Euskararen arnas estua

Euskararen aldetik atzerakada antzeman dute Urretxindorran. Familia erdaldunetako umeek konfinamenduan ez dute euskara entzuteko eta hitz egiteko aukerarik izan. Orain, irailean “mina cabezan” esanez itzuli dira eta hitz egiteko ohitura erabat galduta. “1. mailako nire ikasle bat ez da gai izan oporrak euskaraz kontatzeko, ikastolan lau urte pasatakoa izan arren”, dio Gorostiagak. Hitz egiteko ohitura galdu dute, “eta gure lehenengo helburua ohitura berres-



LH2n gelan bertan sortu dituzte espazio desberdinak beste geletakoekin ezin dutelako nahastu.

kuratzea da, eta ondoren kalitatea hobetzea: hiztegia, esamoldeak eta abar. Izan ere, gure ume askorentzat euskararen erreferentzia bakarra ikastola da. Lehen ETB ere bai, baina gaur egun Youtube eta abar daude, eta hor ez dago euskararik”, azaltzen du Gainzak. “Uste genuena baino gehiago galdu dute sei hilabetetan, baina azkar ari dira berreskuratzen. Ikastolan estimulu, egoera eta erronka asko dituzte eta bi hilabete hauetan hobekuntza itzela ikusi dugu”.

### Nekea igartzen da

Antolaketa berriak uneoro egokitzea eskatzen die hezitzaileei, eta metodologia eta planteamendu guztiak egoera berrira egokitzeak lana bikoiztu ez, laukoiztu egin diela diote. “Goizeko errutinak aldatu dira, denbora pila bat pasatzen dugu eskuak garbitzen, komunera txandaka joaten, etxetik ekartzen dituzten edalontzietan ura banatzen, 25-26 ume gela musukoarekin... Gauza berri asko dira, kontraesan asko, eta horrek nekea sortzen du, estres larregi”, dio Bilbao.

Urtebeteko hurrekin dabilen Garcia ere antzera mintzo da: “Ume bati leku batean aldatzen diot pardela, ondoren desinfektatu egin behar dut, gero esaten didate ez dela beharrezkoa desinfektatzea burbuila berekoak direlako denak, 2 urteko batek armairuaren gainetik puzzle zati bat bota du... Hasieran zoramena zen. Orain, lasaitasun gehiagoz hartzen dugu”. Bilbao ere lasaitzen ari direla dio, “komunera joateko txandekin

ez gara hain zorrotzak, hasieran ‘ez, ez, komunera ez, 10:00etan tokatzen zaigu, bost minutu falta dira’, horrela ginen. Orain, komunean inor ez baldin badago eta txizagurea baldin badute joaten uzten diegu. Beste beharrak errespetatu gabe ari ginela jabetu gara. Apurka-apurka joan gara lasaitasun hori lortzen, baina neke eta tentsio handiz. Dena kontrolatu behar horrek lan estra sortzen digu”. Gorostiagak ongi gogoratzen du komunera joateko tarte hori antolatzeke unea: “Lehen Hezkuntzako sei irakasle geunden, ziklo osoa, eta hiru ordu egon ginen hori nola egin pentsatzen eta erabakitzen”.

“Gizarteak eskatu du eta eman dugu. Hemen ondo daude, seguru daude, gurasoak eta haurrak lasai daude. Gehiago ezin da egin 25 umeekin gela barruan eta ahal den hoberekin egiten ari gara”, dio Bilbao. Halerere, ardurak gehiago partekatu behar direla uste du. “Izan ere, normaltasuna heldu da: umeak eskolan daude eta gaixoak ospitaletan. Sistema ez da aldatu, moldatu gara. Baina sistema osoak eman behar ditu erantzunak, ez hezkuntzak eta osasungintzak bakarrik. Luzerako denez, eta denok dakigunez gutxi gorabehera luzerako izango dela, partxeen ordezkari sakonagoak eta orokorragoak behar dira, sistema osoa aldatu behar da: gu moldatu gara, osasun arloan moldatu dira, beste hainbat lekutan moldatu dira, baina aldaketak benetan sakona izan behar baldin badu, guraso guztiek izan beharko lukete beste era batera lan egiteko aukera”.

# EKARPENAK 1

HIK HASIK, 25 URTE

## Zorionak, Hik Hasi Geroa elkarrekin idatziko dugu!

Ospatzeko unea iritsi da. 2020-2021 ikasturtea ospakizun-urtea izango da **Hik Hasi**rentzat, duela 25 urte ikusi baitzuen argia hik hasi aldizkariaren lehen zenbakiak, eta, beraz, bada zer ospatua haren inguruko hezkuntza-komunitate osoarentzat. Euskal hezkuntza-komunitateari eskaini diona eta komunitate horretatik bertatik jaso duena altxorak dira. Borondatez, bihotzez, elkarlanez eta eskuzabaltasunez osatutako altxorak da. **Hik Hasira** eta haren sortzaile Joxe Mari Auzmendirengana hurbildutakoek hori bizi eta sentitu dute urte hauetan, eta balio horietan oinarrituta jaio, hazi eta heldu da **Hik Hasi**.



Ikasturte berezia izango da arrazoi horregatik, bai eta bizi dugun pandemia-egoeratik ere. Tes-tuinguru zaila egokitu da ospaki-zunetarako, egungo egoerak espazioak, harremanak, topaguneak eta eguneroko bizitza bera baldintzatzen dituelako. Edonola ere, egoera eta erronka berriei irudimena eta aukera berriak baliatuz erantzungo die **Hik Hasik**, eta hainbat egitasmo garatuz ospatuko du 25. urteurrena.

### Sorreraren testuingurua

Egitasmo berri baten hasieran nahastan diren sentimenduak pilatzen ziren duela 25 urte **Hik Hasiren** abiatzean: urduritasuna eta ziurgabetasuna, alde batetik, eta gogoia eta borondatea, bestetik. Euskal hezkuntza-komunitateak topagune bat behar zuen. Euskal

hezkuntzari buruzko aldizkari baten beharra zegoen, ilusioa eta nahia ere bai, eta zailtasunari eta sinesgaiztasunari aurre egin eta abian jartzeko balio izan zuten horrek. Eta, behin abiatuta, ez da geratu. Heziketa euskaldunerako **Hik Hasi** egitasmoak 25 urte bete ditu.

Egitasmoaren sorrera beharrak bultzatu zuen. Hala azaldu zuen Joxe Mari Auzmendik berak *Argia* aste-karian 1995eko urriaren 8ko zenbakian: “Beti kanpoko erreferenteekin ibili izan gara pedagogia munduan, *Cuadernos de Pedagogia*, *Escuela española* eta gisakoekin. Baina gure artean oso esperientzia interesgarriak gauzatzen dira, eta ez dugu elkarren berri jakiteko modurik”. 20. urteurrenean, Ainhoa Azpiroitzek gauza bera azpimarratu zuen **Hik Hasi** aldiz-



kariaren 191. zenbakian: “Euskal Herri osoko eremuan elkarren berri izateko tresna bat da **Hik Hasi**. Ere-mu guztietan eta sare guztietan, izan ikastola, eskola publiko edo bestelako, guztien berri eman izan dugu lekuan lekuko esperientziak jasoz”. Joxe Mari Auzmendik oso garbi ikusi zuen hasieratik elkar hartu beharra zegoela, bakoitza zegoen posiziotik, bakoitzak zeukan ikuspegitik, baina elkar hartuta. Zimendu horien gainean ezarri zen, bada, aldizkaria, eta ezarri dira, baita ere, geroago etorri diren prestakuntza eta proiektu guztiak ere.

### Beharrak eta hutsuneak betetz

Elkarrekin osatutako foro hori abian jartzeko lehendabiziko euskarria **Hik Hasi** aldizkaria izan zen. Irakasleen artean informazioa partekatze, esperientziak trukatzeko eta elkarren berri izateko aukera ematen zuela ikusi zen. Eta, horrela, 1995eko maiatzean, 0. zenbakia argitaratu zen, aldizkari “euskalduna, nazionala, irakasleena, irekia eta plurala, baterakoa eta independentea”. Irakasle eta ikastetxe guztiak bultzatu nahi ziren aldizkarian parte hartzera eta haien esperientziak kontatzera. Nahi zuen guztiarentzat irekia izatea nahi zen, ideologia jakin bati lotua ez egotea,

denontzat izan zedin. Hasieratik hautsi ziren sareen eta administrazioen arteko banaketak; **Hik Hasi** denontzat zen. Sarasuak dioten bezala, hasieran irakasleei zuzendu zitzairen batez ere, “erronka nagusia irakasle guztientzat izatea zelako: sare guztietan zeudenentzat, edozein egoeratan zeudenentzat, pentsamolde desberdina zeukatenentzat... denontzat. Irakasleak protagonista bihurtu nahi ziren aldizkariarekin, eta erakarri. ‘Aldizkari hau gurea da, irakasle guztiona’ ideia zabaldu nahi zen”.

Gerora, begirada irekitzen joan da **Hik Hasi**, eta hezkuntza-komunitate osora zabaldu da bere ikuspegia eta jarduna: irakasleak, haurrak, familiak, aisialdiko hezitzaileak, herria... Beharra non, hura betetzen saiatu da, aurretik aseta edo beteta zeuden eremuetan sartu gabe. Aldizkariarekin informazioaren eta elkarren ezagutzaren beharra aseta, beste hutsune batzuk atzeman ziren jarraian. Lehendabiziko ikasturtean bertan euskal irakaskuntzan lanean zebiltzan irakasle eta hezitzaileek **prestakuntza euskaraz** jasotzeko zuten beharra detektatu zen, orain dela 25 urte prestakuntza gehiena gaztelaniaz edo frantsesez eskaintzen baitzen. Behar horri erantzuteko antolatu ziren aurreneko jardunal-

diak Donostiako Miramar jauregian 1996ko maiatzean, *Irakurketa-idazketa konstruktibismoaren ikuspegitik* izenekoak. 400 lagunetik gora elkartu ziren, eta horrek begien bistan utzi zuen euskarazko prestakuntzaren beharra bazegoela eta jendea horren egarri zela.

25 urteotan, euskarazko prestakuntzaren adarra sendotuz eta eskaintza zabalduz joan da **Hik Hasi**. Ikasturtean zehar, hainbat gairen inguruko **jardunaldiak** eskaintzen dira, besteak beste: berariaz 0-6 etapari zuzendutakoa udazkeneko, Udako Topaketak uztailean, ikasturte osoko psikomotrizitate erlazionalaren inguruko prestakuntza eta bi ikasturteko 0-6 aditu tituluaren formazioa.

Ezaugarri jakin batzuk daude jardunaldi, prestakuntza eta topaketa horien oinarrian. Euskara eta haurra erdigunean jartzen dituen pedagogia berria lantzen da. Eta, horrekin batera, hezitzaileak elkartzeko aukera ematen duten topaguneak dira: elkar ezagutzeko, aurrez aurre egoteko, elkarren esperientziak azalertzeko eta bizipenak partekatzeko.

Hemengo nahiz kanpoko adituak eta erreferenteak ekarri izan dira topaguneetara, eta, horrez gain, beste urrats bat egin zuen **Hik Hasi** 2000. urtean: esperientziak zuzenean eta *in*

## EKARPENAK 1: HIK HASIK, 25 URTE

situ ezagutzeko **bidai pedagogiko** bat antolatu zuen Italiako Reggio Emiliako haur-eskoletara. Prestakuntza-bide berri bat ireki zuen horrek, eta hainbat bidai pedagogiko egin dira geroztik: Finlandiara, Kubara, Estoniara, Kataluniara...

Prestakuntzaren beste esparru bat **monografikoak** izan dira. Hainbat gairen inguruko 34 monografiko argitaratu ditu **Hik Hasik** urte hauetan zehar, eta horrek ere hezitzaileen eta irakasleen beharrak asetzeko balio izan du. Eguneroko lanari eta jardunari lotutako gaiak landu dira, eta tresna baliagarriak izan dira irakaskuntza- zein heziketa-lanerako. Argitaraturiko azkenak etorkizuneko hezkuntza-errealitatei begiratzen die, "Hezkuntza-errealitate berrietara jauzi" izenburupean.

Monografikoez gain, **liburuak** ere argitaratu ditu **Hik Hasik**, uanean- uanean zegoen beharrari erantzuteko material egokia zela ikusi den heinean. Hor ditugu Euskara eta gazteak, *Ilunetik argira-Elbira Zipitria*, *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako*, *Gaxuxa*, *Euskal Herrian erreferente diren pedagogoak*...

Musika-liburuen bilduma bat ere egina du **Hik Hasik**, eta hainbat instrumenturekin jotzeko abesti ezagunak biltzen dira horietan, musika-tresna horiek jotzeko metodoarekin batera: *Txirulaz I*, *Txirulaz II*, *Gitarraz*, *Pianoaz*, *Eskusoinuaz* eta *Ostadarraren hotsaz*.

### Haurrak erdigunean eta familiak gogoan

Irakasleen euskarazko jardunari eta prestakuntzari garrantzia eman zaien gisa berean eman zaio haurren euskararen erabilerari ere. 90eko hamarkadaren amaieran, hutsune bat ikusi zen: haurrak ez ziren euskaraz jolasten. Soka-saltoan, korroan, ezkutaketan, harrapaketan, hatz-jolasetan eta abarretan ibiltzeko garaian, gaztelaniazko edo frantsesezko abestiak abesten zituzten. Hori ikusita, **euskarazko abestien bilduma** bat egin genuen: *Haur-jolasen abestiak*. Parte-hartze zabaleko esperientzia aberatsa izan zen (Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak eta Euskal Herriko hainbat ikastetxetako haurrak), eta izugarritzko arrakasta izan zuen bildumak.

2000. urtean, proiektu honen beste urrats bat etorri zen: jolasak nolakoak ziren ikusteko bi bideo egin ziren: *Zatoz jolastera!* eta *Jolasen altxorra*. Pirritx eta Porrotx pailazoek, haurrek eta Euskal Herriko kulturaren eta kirolaren munduko hainbat aurpegi ezagunek hartu zuten parte; denak jolasten eta abesten, istorio baten bueltan. Arrakasta itzela izan zuten, eta bultzada handia eman zioten euskarazko haur-jolasen abestien hedapenari eta ezagutzari.

Irudien munduan sartuta, hurrengo ekarpenak *Ilargiaren sekretua* filma (2004an) eta, haren ondoren, *Begira-*

*daren heziketa* izan ziren (2005ean). Berriro ere film bat egin zen Pirritx eta Porrotxen eta umeen parte-hartzearekin, eta harekin batera telebistaren eta zineman erabiltzen diren baliabideak ezagutzeko material didaktikoa sortu zen.

*Kukurruku, zer diozu?* CDan, berriz, ahozkoatasuna eta literatura hartu ziren ardatz. Bernardo Atxaga, Arantxa Iturbe, Anjel Lertxundi, Juan Kruz Igerabide eta Mitxel Murua-ren ipuinak, Joxan Ormazabal en olerkiak, Jexux Mari Lopetegiren musika, Antonio Bolasen pasadizoak eta Pirritx eta Porrotx pailazoek eta umeen elkarrizketak. Material bizia, ahozkoatasuna lantzeko eta ipuinak entzuteko.

Umeak beti presente egon dira **Hik Hasin** 25 urteotan; hezkuntzarekin eta eskolarekin lotuta, eta irakasleekin batera, ikasleak daudelako. Baina ikasle horiek seme-alabak ere badira; eskolan hezteaz gain, etxean ere bizi eta hezten dira. Horrexegatik, eskola eta familia uztartu zituen **Hik Hasik**, eta familiei zuzendutako **Hazi Hezi** aldizkaria argitaratzeari ekin zion 2012an. Gurasoei eta familiei haziera eta heziketari buruzko gaien inguruko informazioa ematen dien aldizkaria da. Nahiz eta une hartan kazetaritzaren eta paperezko argitalpenen krisi betean egon eta euskarazko prentsa beheraka joan, argi ikusi zen tresna bat behar zela gurasoei aipatutako gai horien inguruko informazioa emateko, eta aurrera eramanean zen proiektua. Euskal Herriko profesionalekin, hala nola irakasle, pedagogo, psikologo, pediatra edota psikomotrizistekin osatzen da hiru hilean behin **Hazi Hezi**.

**Hik Hasi** eta **Hazi Hezi** aldizkarietan, zabaldu egiten da hezkuntzaren eta heziketaren gaineko ikuspegia, hezkuntza eta heziketa guztion zeregina baita, ez eskolarena soilik, ez familiaena soilik. Eskolan eta etxean hezten dira haurrak, eta baita kalean ere, aisialdiko esparruetan, heldu eta zaharrek, beste adinetako haur eta gazteekin... herrian. Ikuspuntu horri jarraituz, 2012an, beste eragile batzuekin batera, haurra hezten duten herrien inguruan hausnartzen hasi zen **Hik Hasi**. Herrigintzatik, benetako



parte-hartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburua hartuta, proiektu berri bat sortu zen: *Oinherri, herri hezitzailea*. Gaur egun, Euskal Herriko hainbat herri dira proiektu honetan murgilduta daudenak, euren herria denentzako herri bilakatu nahi dutenak, denen parte-hartzearekin, herriko aniztasuna aintzat harturik eta denei lekua eginez.

Herri hezitzailearen ikuspegia edukitzeaz gain, filosofia hori gauzatzeko bitartekoak eskaintzea garrantzitsua zela ikusten zuen **Hik Hasik**. Hortik etorri zen beste proiektu bat: tokian tokiko ondarea jasotzeko eta ezagutzarako baliabide pedagogikoak sortzea. **Hik Hasik** Oretako materiala ondu zuen, eta, ondoren, Arrasaten eta Azpeitian ere egin zituzten, **Hik Hasiren** aholkularitzarekin.

### Hik Hasiren eragile sena

Duela 25 urteko erronkak aipatutakoan, “denon elkargune izango den foro bat” sortu nahi zela azpimarratu da, eta **Hik Hasin** serio hartu izan da ezaugarri hori, denengana irekitze hori, denen arteko izaera bateratzaile hori. Garaiak eta egoerak ez dira beti aldekoak izan, baina, Joxe Mari Auzmendik zioen bezala, “batzen gaituenean” jarri du indarra **Hik Hasik**: “Elkartuko gara, lasai, elkarrekin goaz eta elkartuko gara”, zioen. Euskal hezkuntza-sistema propio baten bidea jorratzeko lanean jardun da **Hik Hasi**, eta hainbat emaitza izan dira 25 urteotan: 1999an, Hezkuntzaren Gizarte GUNEA dinamizatu zuen, hezkuntzaren gaien inguruko eztabaida eta hausnarketarako bilgunea, eta irakaskuntzan euskarak zuen egoeraren gainean *Adostasun txostena* egitea lortu zen; 2003an, Nazio Eztabaida Gunearen barruan Hezkuntza Batzordea eratu zen, euskal hezkuntza-sistema nazionalaren inguruko hausnarketa egiteko, eta *Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa* izan zen emaitza; 2018an, *Hezkuntza Proposamena* aurkeztu zuen ([www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)-en dago dokumentu osoa), euskal hezkuntza hobetzeko hamar gakorekin. Orain, 25. urteurrenean, guztiontzako hezkuntza-eredu hobe baten aldeko proposamena dakar **Hik Hasik**.

## Hik Hasiren balioak eta "marka"

25 urteko ibilbidean, balio batzuen alde egin du nabarmen **Hik Hasik**. Denengana zabaltzea, parte hartze-ko gonbidapena luzatzea, espiritu zabala, askotarikoa eta parte-hartzailea, konstante bat izan dira 25 urteotako ibilbidean, **Hik Hasiren** “marka”, nolabait esatearren.

### Euskara

Ardatza, zutabea, muina. **Hik Hasiren** jarduna euskaraz garatzen da. Ipar hori oso presente dago beti. Euskaraz elikatu da **Hik Hasi**, hemengo aditu eta erreferenteekin nagusiki.

### Sentitu, pentsatu, ekin

Etorkizun argirik ikusten ez zitzaion proiektua aurrera ateratzeko osagai batzuk izan dira: jendearen energia eta bultzada, herri-konpromisoa, auzardia eta “sentitu, pentsatu, ekin” sentimendu oso sakona eta garbia. Garai hartan zeuden premiak eragile eta irakasle askoren artean partekatutakoak eta sentitutakoak ziren, eta horrek bultzatuta elkartu zen jendea.

### Harpideak

Herri-konpromiso batetik sortutako egitasmoa izanik, harpidedunak oinarri, zutabe, horma eta teilatu dira. Etxearen euskarri nagusia. Haien konpromisoari esker izan da posible **Hik Hasiren** inguruan antolatu den hezkuntza-komunitatea sortzea eta elikatzea.

### Izaera bateratzailea

Hezkuntza-komunitate osoa batzeko erronka izan du hasieratik: Euskal Herriko zatiketa administratiboaren eta sareen arteko banaketaren gainetik, lurraldetasunari eta hezkuntzaren jarduerari berari eman dio lehentasuna. Horren adierazgarri dira **Hik Hasik** 2009an egindako Hezkuntza Gorapamenak —Udako Topaketan 10. urteurrenean eta **Hik Hasiren** 15. ikasturtean egin zirenak—. Euskal Herri osoko 80 hezkuntza-ordezkarri elkartu zituen ekitaldi-bazkaria izan zen.

### Elkarlana

Hezkuntzako eta gizarteko eragileekin elkarlanean aritu da, errespetuz eta lankidetzarako prest. Eragile emankorra, baikorra eta eskuzabala izaten asmatu du, eta, horren ondorioz, ongi onartua eta ongi ikusia izan da. Ekarpene gisa bizi izan dute gainerakoek, eta ez mehatxu gisa.

### Errespetua

**Hik Hasik** errespetuz eman ditu urratsak: desberdinaren errespetutik, beste bide bat jorratzearen errespetuz, beste izaera baten errespetuz, beste nortasun baten edo beste pentsamendu baten errespetuz...

### Aintzat hartua Euskal Herrian eta munduan

Hainbat sari jaso ditu 25 urteotan, eta **Hik Hasiren** ekarpenaren adierazgarri dira: 2001ean, *Zatoz jolastera!* bideoarekin, jatorrizko bideoen sailean aipamen berezia jaso zuen Migel Altzo sarietan; Lekeitioko XXV. Zine eta Bideo Bilerako saria 2002an, lan berarekin; Migel Altzo Sarian, bideorik hoberenaren saria 2006an, *Begiradaren heziketarekin*; eta *Argiaren* merezimendu saria 2006an, *Hik Hasik* 10 urte bete zituenean.

Bidaia pedagogikoen eta jardunaldien bitartez, harremanak egin ditu nazioartean hezkuntza-munduan pisua duten eta erreferenteak diren pertsonekin. Eta joan-etorriko bidea izan da, nazioartean ere adituek **Hik Hasi** ezagutzen baitute. 25 urteotan, mundura ere zabaldu da **Hik Hasi**.

### Beti erne eta jakin-minez

Euskal Herrian zein nazioarteko hezkuntza-mugimenduei begira egon da beti, erne, jakin-minez eta interesarekin.

### Begirada zabaltzen

Eskola, familia, herria. Begirada zabaltzen joan da urteotan, aurrekoari entzutearekin batera pixka bat zabaltzeko eta aurrera jotzeko prest beti.

## EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA AURRERA BEGIRA:

### Elkarrekin, guztiontzako hezkuntza-eredu hobe baten alde

Mundua astindu du COVID-19ak eta baita Euskal Herria ere. Gizarteko arlo asko ukitu ditu, eta baita hezkuntza ere. 2020ko udaberriaz geroztik konfinamendua, kontingentzia-planak eta protokoloak nagusitu dira ikastetxeetan, aisialdian, hezkuntza ez formalean eta herrietan. Horrek denon egunerokotasunean eragin du: lan egiteko moduan, erlazionatzeko moduan eta bizitzeko eran. Ziurgabetasun-egoera ekarri du eta ikasturte hasieran ohiko gaiei eta kezkei lekua eta denbora kendu diete protokoloek, hartu beharreko neurriek eta kezka berriek.

Azken hilabeteetan osasuna erdigunean kokatu da eta neurriak osasuna bermatzera bideratu dira. Ekonomia ere aintzat hartu da, berauk hondoa ez jotzeko neurriak hartuz. Orain, hezkuntzaren garaia da. Osasunaren eta ekonomiaren aldamenen kokatu behar da hezkuntza, neurriek eta protokoloek hezkuntza-irizpideak ere aintzat har ditzaten. Orain arte esku artean genituen aldarrikapenak, proiektuak eta proposamenak mahai gainean jarri behar ditugu berriro. Horixe da **Hik Hasik** luzatu nahi duen mezua. 25 urte bete ditu **Hik Hasik** eta aurrera begira, Euskal Herriko hezkuntza elkarrekin garatzeko mezua luzatzen du, guztiontzako hezkuntza-eredu hobe baten alde jardun dezagun.

Euskal Herriko hezkuntzak unea du aurrera begira jarri eta eraldaketa sakona egiteko. Nor bere lubakian gotortu beharrean, guztiona eta guztiontzako hezkuntza-eredu hobe baten alde elkartzeko unea da. Eta hori eragile guztien parte-hartzearekin egin behar da. Erronka handiak ditugu aurrean: osasun-krisi larri bat elkarrekin gainditzeaz gain, hezkuntza-eredu publiko, propio eta bateratzailea eraiki behar dugu; gizarte kohesioa erdietsiko duen kultura-eredu berri bat behar dugu, eta aldi berean aniztasunari lekua egingo diona; jasangarritasuna ardatz izango duena; haur eta gazteak euskaldun eleaniztun bilakatu behar ditugu; haiek balio egokietan hezte eta konpetentziak garatzen laguntzea funtsezkoa da, ikuskera propioa izan dezaten eta egungo gizartea hobetzeko gai izan daitezen.

Aurrerapauso hori egiteko, gaur egun hezkuntzan diharduten eragile guztien lanaren aitortzatik abiatu behar da; dela egungo eskola publikoak, dela ikastolak, dela gizarte ekimeneko ikastetxeak, dela eskola libreak, direla aisialdian diharduten eragileak, direla sindikatuak, direla udalak, direla Hezkuntza Sailak. Guztien ekarpenak hartu behar dira aintzat, sare eta lurralde guztietako irakasleena, baita ikasle, guraso eta tutoreena, zerbitzuetako langileena eta, oro har, hezkuntza komunitatea osatzen duten pertsona oroena ere. Bakoitzaren esparrua eta aniztasuna errespetatuz, hezkuntza-jarduera guztien oinarriak berriro eta bateratu behar ditugu, elkarrekin aurrean ditugun erronkei behar bezala erantzuteko. Osasun-krisi honek mahai gainean inoiz baino indar handiagoz jarri du aurrera egitekotan elkarrekin egingo.

Hortaz, hezkuntza berrirako behar ditugun oinarri bateratuak adosterakoan, hiru ardatz hauek gartu beharko dira, gutxienez:

**1. Komunitatean eta komunitaterako hezi:** heziketa herri baten testuinguruan gertatzen da, nagusiki familian, eta eskolak eta aisialdiak ere berebiziko garrantzia du. Beraz, batetik, jendarteak heziketaren ardura bere gain hartu behar du; eta bestetik, jendarte horrek bateratuago aritu behar du, elkarrekiko konfiantzan eta elkarzaintzan oinarrituta. Horrela, hezkuntza-eragileek lankidetzan aritu behar dute, herriko hezkuntza planak adostu eta egikaritzeko. Horrez gain, euskal komunitate zabala-ren partaide gisa hezi behar dugu, ikuskera propioarekin Euskal Herritik mundura begira.

2. Gure haur eta gazteak **bizitzarako hezi** behar ditugu; beraz, **heziketak kritiko eta askatzailea** behar du izan, eta haur bakoitzari **osotasunean garatzen** lagundu behar zaio, den hori errespetatuz bere. Ildo horretatik, *Herri hezitzailearen* filosofiari jarraiki *Oinherri* elkarteak adostu zituen **balioak** aldarrikatzen ditugu. Aldi berean, bizitzako **lehen urteen garrantzia** aintzat hartuta, konfiantzazko ingurune goxoa eskaini behar zaie haurrei. Bizitzarako hezteak, halaber, naturarekin bat eta gaitasun ekosozialetan heztea esan nahi du, hori izango delako edozelako pandemien prebentziorik onena.

3. **Herritar euskaldun eleaniztunak** sortu behar ditugu. Horretarako, mantentze eta murgiltze ereduak dira bide, eta herriko askotariko eragileak bidelagun. Euskararekin batera, euskal kulturaren transmisioa eta sormena sustatzea ezinbestekoa da. Horretarako baliabideak jarri egin behar dira, premien araberako baliabideak.

Hiru zutabe horietan oinarrituriko ERALDAKETA sakonak gauzatzeko, ordea, lehenik Espainiako eta Frantziako estatuetatik jaso dugun hezkuntza sistema horiek eragiten dizkiguten oztopoez ohartu behar dugu: sareen arteko zatiketa, hezkuntza esparruen arteko banaketa, burokratizazioa eta urruneko antolaketa, autonomia falta eta berdintasunik eta kohesiorik eza hezkuntzaren kalitatearentzako oztopo eta traba dira.

Orain inoiz baino gehiago, osasun-krisiak nabarmen utzi duenean hezkuntzan eraldaketa sakona behar dugula, zutabeak finkatzeko garaia dugu, beste era bateko **antolaketa eredu behar dugu: sistema publiko edo komunitario baterazlea, anitza, parte-hartzailea eta inklusiboa izango dena**. Ezaugarri hauek izan beharko ditu: Euskal Herri osorako pentsatua eta artikulatua eta, era berean, gertuko kudeaketan oinarritua izango dena; Europako hainbat eredu jarraiki, **ikastetxeei autonomia** emango diena, bai barne-antolaketari bai arlo pedagogikoari dagokienean, beren hezkuntza egitasmo propio indartsu eta ilusio sortzailea gara dezaten. Hezkuntza komunitateko kideen arteko konfiantza eta zaintza erdigunean izango dituen, eta **hezitzaile eta irakasleen prestakuntza egokitua itsasargi izango duena**, bereziki aipatutako hiru oinarrien lanketari dagokionez, eta baita **zuzendaritza-taldean** egonkortasunez arituko direnena ere.

Hezkuntza sistema berria eraginkorra izan dadin, **finantziario egokia** beharko du, noski, hezkuntzak gizartean duen garrantziaren araberakoa eta **hezkuntza-premiei** erantzuteko behar bestekoa; hau da, Europako eredu ditugun herrialdeen parekoa (5 urteko epean, BPGren % 6ra iristea, gutxienez). **Aniztasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioak** bete daitezten, honakoa bermatzeko moduan erabili beharko da: edonor aukera berdinetan matrikulatu ahal izatea, aipatutako hezkuntza-sistema publiko anitz baterazle horretako edozein ikastetxetan. Ikaskuntza jarduera kalitatezkoa gerta dadin bermatzeko, hezitzaile/ikasle ratioak egokiak izan behar dira.

Horrenbestez, adierazpen honekin bat egiten dugunok:

#### Zera eskatzen diegu...

- **Hezkuntza eragileei:** Euskal Herrirako hezkuntza sistema komunitario baterazlearen alde lan egin dezatela, adostasunera iristeko borondatez eta zer-nolako Euskal Herria eraiki nahi dugun jomuga hartuta.
- **Hezkuntza Sailei:** hezkuntza eragile guztien egiazko parte-hartzea eta adostasunaren bidez, behar dugun hezkuntza sistema propioa garatzeko nahitaezko urratsak egin ditzatela eta baliabide eskaini ditzatela.
- **Udalei:** udalerriko haur eta gazteen hezkuntza beren berezko zeregintzat har dezatela, eta herriko hezkuntza eragile guztiekin lankidetzaren emankorrari bide eman diezaiotela, harik eta Udal Hezkuntza Plan bat elkarrekin adostera eta garatzera iritsi arte.

**Konpromiso hau hartzen dugu:** gure eremuan, udalerrian eta Euskal Herriari begira lan egingo dugula, eragile, ikastetxe, sare eta gizabanako guztien artean konfiantza eta lankidetzaren sustatzeko, euskal hezkuntzak aurrean dituen erronkei erantzuteko norabide berean egin behar baitugu denok arraun.

# EKARPENAK 2

URIZ PI AHIZPAK

## Uriz Pi ahizpak, ideia berritzaileen defendatzaile sutsuak

Orain arte ezezaguna izan da Pepita eta Elisa Uriz Pi ahizpa nafarrek hezkuntzaren arloan egindako lana eta ekarpena. XIX. mendearen amaieran hasi eta XX. mendearen erdialdera bitartean, pedagogia berritzaileak eta ideia aurrerakoiak zabaltzen eta praktikan jartzen aritu ziren Katalunian, eta garaiko borroka antifaxistan eta aldarrikapen feministetan ere parte-hartze aktiboa izan zuten. Iruñeko Planetarioan egon den erakusketak Uriz Pi ahizpen lana hobeto ezagutzeko aukera eman du, bai eta Txalapartak berriki argitaratu duen *Pioneras. Historia y compromiso de las hermanas Uriz Pi* (Aitzindariak. Uriz Pi ahizpen historia eta konpromisoa) liburuak ere.



Uriz Pi familiaren argazkia, 1981. urtean Gironan hartua.

**B**izitzaren parterik handiena Euskal Herritik kanpo eman arren, Nafarroan jaioak ziren Pepita eta Elisa Uriz Pi ahizpak, eta euskal herritarrak zirela esaten zuten beti. Pepita Badoztainen jaio zen, 1883. urtean, eta Elisa Tafallan, hamar urte geroago, 1893an. XX. mendearen hasieran, Madrilera lekualdatu zen familia osoa, eta, ohikoa ez izan arren, unibertsitate-ikasketak egitera bultzatu zituzten. Horrela, biek Madrilgo Irakasle Eskolan egin zituzten ikasketak lehen-dabizi, eta, ondoren, Irakasle Ikasketen Goi Mailako Eskola sortu berrian. Pepita bere promozioa lehen izan zen, eta karrerako sari berezia jaso zuen. 1914. urtean, Gironako Irakasle

Eskola Normalean hasi zen lanean, eta, 1921ean, Lleidakora pasa zen. Elisa Tarragonako Eskola Normalean musikako irakasle gisa hasi zen 1922an.

Etorkizuneko irakasleen prestakuntzan ideia eta praktika pedagogiko berritzaileak jarri zituzten martxan, besteak beste, pentsamendu kritikoa, eztabaida, testulibururik gabe aritzea, norberak bere oharrak jasotzea eta abar. Garai hartan European loratzen ari ziren proposamen pedagogiko interesgarriak ezagutzen zituzten, eskola tradizionala hausten zutenak, eta haiek praktikan jartzeari ekin zioten. Irakaskuntza Librerako Erakundearen eta Ikasketa eta Ikerketa Zientifikoa Zabaltzeko Batzordeak atzerrian

ikasteko bekak eman zizkien, eta, horiei esker, egonaldiak egin zituzten kanpoan, Pepitak Belgikan eta Parisen eta Elisak Suitzan. Puntako pedagogoen proposamenak lehen lerrotik ezagutzeko aukera eman zien horrek. Gaur egun erabat onartuta dauden ideia pedagogikoak babestu zituzten Kataluniako beren jardunean, eta “eskola modernoa” deitzen zena abiatu baino mende erdi lehenago hasi ziren Uriz Pitarrak praktika berritzaileak garatzen. Haien ustez, eskolak haurren prestakuntza intelektuala, morala eta orokorra bultzatu behar zituen; desberdintasunak gainditu behar zituen ikasleen jatorriari eta helburuei zegokienez; ikasleek herritar aktibo izan behar zuten, eta begirada kritikoa garatu behar zuten. Eta, horrekin guztiarekin batera, katalanez ikastearen alde agertu ziren. Neskak eta mutilak nahasteko ahalegina egin zuen Pepitak, eta Elisak Genevan ezagututako Dalcroze metodoa erabili zuen Gironako eta Tarragonako Eskola Normaletan. Irakaskuntzako langileen eskubideak eta duintasuna ere aldarrikatu zituzten, eta Kataluniako hezkuntzako langileen sindikatu nagusiko lehendakari izatera iritsi zen Pepita.

1936an, Espainian II. Errepublika aldarrikatu zenean, Pepitak Lleidako Eskola Normaleko zuzendaritza hartu zuen berriro, eta eskola modernorako bidea urratzen hasi zen. Izan ere, aurrez, 1933ko hauteskundeetan, CEDAk (Confederación Española de Derechas Autónomas) irabazi zenean, postu horretatik kendu zuten, eta 1936an itzuli zen zuzendaritzara, Fronte Popularraren garaipenaren ondotik.

### Oztopoen gainetik, segi

Urte horietako ibilbidean, oztopo eta traba asko topatu zituzten, bidea ez baitzen erraza garai haietan. Ez zegoen batere ondo ikusia eskolan soinketa edo dantza egitea, neskak eta mutilak elkarrekin aritzea, liburu alternatiboak irakurtzea eta abar. Proposamen iraultzaileak ziren Uriz Pi ahizpenak, eta kontrako asko zituzten inguruan. Lleidako eskolan zebilela, diziplinazko espediente jarri zioten Pepitari, ikasleei proposatutako




Ezkerreko irudian Elisa agertzen da nazioarteko prentsa irakurtzen. Mugimendu sindikalean nahiz Emakumeen Nazioarteko Federazio Demokratikoan parte hartzen zuen aktiboki. Eskuineko irudian Txalaparta eta Pol-len argitaletxeek katalanez argitaratutako liburua.

zenbait irakurgai desegokiak zirela argudiatuta, eta haren kaleratzea eskatu zuten. Garai hartako hainbat intelektualen artean — Santiago Ramon y Cajal, Miguel Unamuno, Antonio Machado, Manuel Bartolome Cossio... — oihartzun handia izan zuen eskaerak, eta idatzi bat argitaratu zuten Pepita Uriz Piren defentsan eta katedra-askatasunaren alde.

Hezkuntzan ez ezik, gizarteko hainbat borroka eta aldarrikapen askatzaile eta berritzaileekin bat egiten zuten. 1936ko gerra zibilean, irakasle eta herritarrekin batera —emakumeak nagusiki—, Ajut Infantil a Reraguarda izeneko ekimena sortu zuten, eta ehunka udaleku prestatu zituzten gerratik ihesi zebiltzan haurrei babesa eta jatekoa emateko.

Haurren ongizatearekin batera, emakumeena ere xedetzat zuten. Irmo aritu ziren emakumeen eskubideen defentsan. Emakume antifaxisten elkartean aritu ziren biak. Elisak Nazioarteko Emakumeen Federazio Demokratikoko zuzendaritzan jardun zuen 1940ko eta 1950eko urteetan. Besteak beste, haurren eskubideen defentsan aritu zen — aurretik Emakume Espainolen Elkargoan aritu zen bezala—, eta, haren lanaren ondorioz, Nazio Batuen Erakundeak Haurren Eskubideen Adierazpena eta Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna aldarrikatu zituen 1950eko hamarkadan.

Konpromiso politikoari jarraiki, alderdi komunistetan militatu zuten



biek, eta ardura-postuak izan zituzten zenbait elkarte antifaxista eta komunistatan. 1939an, frankistek Bartzelona hartu zutenean, Frantziara egin zuten ihes, eta errefuxiatuei laguntzen aritu ziren han. Frantziako Erresistentziako lehen taldeetan pisu handia izan zuten, Uriz Pi ahizpentzat faxismoaren kontrako borrokaren segida baitzen. Frantziarrentzat, garrantzitsua izan zen 36ko gerratik erbesteratutako laguntza alemaniarrei aurre egiteko, baina Bolero-Paprika operazioan, militante komunistak deportatu egin zituzten. Hala, Pepita eta Elisa Berlin sobietarrera joan ziren bizitzera, eta han zendu ziren, Pepita 1958an eta Elisa 1979an.

### Ezagutzarekin batera, aitortza

Manuel Martorell historialariak, Salomo Marques Gironako Unibertsitateko Hezkuntzaren Historiako irakasle erretiratuak, eta Mari Carmen Agullo Valentziako Unibertsitateko Hezkuntzaren Historiako irakasleak idatzi duten liburuak — *Pioneras. Historia y compromiso de las hermanas Uriz Pi* (Aitzindariak. Uriz Pi ahizpen historia eta konpromisoa)— bi ahizpen ekarpina hobeto ezagutzen lagunduko du. Urteetan ezagutu gabeko lana izan da, eta gero eta datu gehiago bistaratzen ari dira. 2013an, Badoztainen egin zitzairen lehendabiziko omenaldia eta aitortza, eta, handik urtebetera, Sarrigurengo eskolari Josefa Uriz izena jarri zioten.

# GALDEIDAZU

## 'ESKOLARA BUELTA' INKESTA EGIN DUZUE FAMILIEN ARTEAN. ZER IRITZI ETA KEZKA DITUZTE FAMILIEK?

**A**ztiker Ikergune Soziologi-koaren ekimen bat izan da *Eskolara buelta* inkesta. Inkesta honek ikasturte berria dela eta, hezkuntza komunitatea osatzen duten familien iritziak eta kezka aztertzen ditu. Hezkuntza komunitatean ikasturte berriaren aurrean zegoen ziurgabetasunezko egoera ikusita, hezkuntzako hainbat aditu eta eragilerekin kontraste azkar batzuk egin eta egoera horretan Hego Euskal Herriko hezkuntza komunitate osoarentzat lagungarriak izan zitezkeen datuak biltzea erabaki genuen Aztikerren. Datu horiek beraz, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan eta irailaren 4tik 8ra bitartean bildu ziren, biak barne. Inkesta bide digitaletik egin zen, inkestatuak berak autobetetako galdetegi baten bidez. Guztira 1.649 inkesta jaso ziren. Horietatik, justu 800 inkesta izan dira ustiatu direnak (guztien azterketa estatistikoa egin ondoren balekotzat eman eta 3 eta 12 urte arteko umeak dituzten familien erantzunei dagozkienak). Xehetasun tekniko gehiago ikusteko txosten osoa hemen aurkitzen da: <https://aztiker.eus/proiektuak/eskolara-buelta-familien-bizipen-eta-iritziak/>



### ASIER ETXENIKE Aztikerreko ikerketa zuzendaria



#### Heziketa ardurak eta generoa

Neurri posible ugariri buruz ikertu da, landa-lanaren datetan hainbat galderen artean, bereziki hezkuntzaren eremuan indarrean dauden neurri batzuk eta epe ertain eta luzerako beste neurri hipotetiko batzuen inguruan galdetuta. Baina eduki horietan sartu aurretik, datu bat nabarmendu nahiko genuke. Jasotako erantzunak familien izenean emandakoak izan dira. Beraz, familia bakoitzeko pertsona baten erantzuna behar zen. Oso adierazgarria iruditzen zaigu umeen heziketaz erantzuteko orduan inkesta guztien % 86a emakumeek erantzun izana. Umeen zaintza eta heziketa arduetan sexu/generoen artean desoreka dagoela esatea ez da berria. Baina proportzio horrek argi adierazten du desoreka hori zein neurrikoa den umeen heziketaren ardurari dagokionean behintzat, gizon eta emakumeen artean.

Eta desoreka hori ez da nolana hiko aurrerago landuko eta komentatuko ditugun emaitzen gainean pentsatzean, desoreka horrek beste hari asko luzatzen baititu. EHUren ikerketa baten arabera<sup>1</sup>, konfinamendu garaian areagotu egin ziren ondoez psikologikoak, nagusiki ezjakintasunak,

<sup>1</sup> BALLUERKA LASA, NEKANE et al. Las consecuencias psicológicas de la COVID-19 y el confinamiento. EHU, 2020. > Berdintasuna pandemia garaian. COVID-19aren eragina genero ikuspegitik. Emakunde 2020ko uztaila lanetik hartuta.

gaixotasun larri bat izatearen edo izateko aukeraren kezka eta maite ditugunak galtzeko kezka eraginda. Datuek erakusten dute emakumeek gehiago egin zutela okerrera kontu horietan, eta baita egonkortasun emozionalarekin lotutako beste elementu batzuetan ere: gehiago jasan zituzten lo egiteko arazoak, kontzentratzeko zailtasunak, antsietateak, umore-aldaketak, deskonektatzeko arazoak edo narritadura.

Hori guztia kontuan hartuta, eskolaz eta umeen heziketaz ari garelarik, bertan hartzen diren erabakiak nork/nortzuk hartzen ditu eta nork/nortzuk hartu beharko lituzke? Eta nori eragiten dio gehiago bertan gertatzen denak? Eskolak funtzio erreproduktiboa eta zaintza funtzioak dituen neurrian, zer-nolako talkak eman dira eta ematen dira esparru erreproduktiboa eta produktiboaren artean eta euren arteko interes ezberdinekin? Nola bideratu dira talka horiek? Eskolak heziketa edo eremu pedagogikoa baino askoz gehiago dira eta galdera horiei (eta beste askori) ematen zaizkien erantzunek ondorio anitzak dituzte.

Hori esanda, orain goazen inkestareraren edukietara.

### **Eskolara buelta: umeak, COVID-19 eta neurriak**

Umeak, beren familien arabera, ikasturte amaieran baino poztasun handiagoarekin eta urduritasun handiagorekin bueltatu ziren eskoletara. Urduritasun hori bi zentzutan uler daiteke. Modu positiboago batean: zinetan umeak irrikaz zeuden eskolara bueltatzeko, lagunak ikusteko e.a. Edo negatiboago batean: egoera berria, neurri berriak, ezjakintasuna... eskolara buelta modu negatiboago batean bizitzera eraman zitzaizketenak. Inkestan jasotako datu guztiak ikusita, kasu gehienetan urduritasun hori lehen zentzuan interpretatu behar dela uste dugu. Hau da, urduritasun hori poztasunarekin lotzen da. Izan ere, adierazgarria da ekainetik irailera umeen artean nola jaitsi diren haserrea, inpotentzia edota tristura bezalako sentimenduak. Hala ere, nabarmentzekoa da, horrek umeen zaintza emozionalari dago-

kionean izan ditzakeen inplikazioengatik, ia umeen % 10ak beldurtuta jarraitzen zuela irailean.

Bestalde, kutsatzea saihesteko neurriak hartzea oso garrantzitsua edo garrantzitsua da familien % 90arentzat. Nolabait badago adostasun zabal bat horretan. Baina zein neurri hartu edo zein modutan, horretan badago eztabaidarik. Batetik, neurri gogorrean izan daitekeenari dagokionez — konfinamendu osoa —, behar izanez gero, gehiengo konfinamendu berri baten alde dago, baina beste modu batean eginda. % 51,3k, konfinamendu baten alde egonik ere, ez luke nahi apirileko moduko konfinamendu bat. Horrez gain, beste % 33k ez luke nahi inolaz ere beste konfinamendu bat. Beraz, neurriak hartzearen behar zabalduak, osasun eta zaintza komunitarioaz gain, beste erabateko konfinamendu bat ekiditearekin ere izango du zerikusirik.

Zentzu horretan, udaberriko konfinamenduari familia hauek egin diezaizketen kritiketako batek umeen ongizatearekin eta eskubideekin zerikusia izan dezake. Familiei inkestan eskatzen zitzaizkien hainbat esaldiekiko haien adostasun maila adieraztea. Esaldi horien artean bat hauxe zen: “Pandemiaren hasieratik ez dira kontuan hartu adingabeen eskubideak” eta erantzun zutenen % 83,5 oso ados edo ados zegoen horrekin.

Adingabeen eskubideak kontuan hartzeko orduan dimentsio asko sartu daitezke eta ez soilik konfinamenduaren testuinguruan. Horregatik, konfinamenduaz gain, inkesta egiteko momentuan eskoletan hartzen ari ziren edo har zitezkeen neurrien inguruan ere galdetu zen. Oro har, galdetutako neurri guztiek lortzen zuten aldeko jarrera bat. Izan ere, 0 eta 10 arteko eskalan neurtuta, denek 6tik gorako adostasuna eskuratzen zuten batez beste. Baina, aldi berean, neurrien artean baziren alde nabarmenak. Atxikimendu txikia eskuratu zuenaren eta handia eskuratu zuenaren artean ia 3 puntuko aldea eman zen.

COVID-19ari aurre hartzeko edo hobe esanda, bere zabalkundea mantsotzeko, espazio irekien garrantzia azpimarratu da leku askotatik eta

**COVID-19ari aurre hartzeko edo hobe esanda, bere zabalkundea mantsotzeko, espazio irekien garrantzia azpimarratu da leku askotatik eta adierazpide propioekin baita hezkuntza komunitatetik ere. Aldi berean, ez soilik COVID-19a dela eta, bestela ere praktika osasuntsuak izateari begira, espazio irekiek eta natura espazioek izan dezaketen garrantzia azpimarratu da.**

adierazpide propioekin baita hezkuntza komunitatetik ere. Aldi berean, ez soilik COVID-19a dela eta, bestela ere praktika osasuntsuak izateari begira espazio ireki eta natura espazioek izan dezaketen garrantzia azpimarratu da. Baso eskolak eta antzeko ereduak garatu dituzten proiektuak jarri izan dira mahai gainean. Kontua zera da, izan testuinguru guzti honen eraginaren ondorioz edo izan bestela ere, berez horrelako ereduak ekar ditzaketen onurak baloratzen dituztelako, familien artean neurri baloratuena “kanpoko eta natura espazioetako heziketaren aldeko apustua egitea (ikasleriaren eskolak gela barruan zein gela kanpoan emango liriateke)” izan dela. Harreman estua izan dezakeen beste esaldi honek, “eskolarako espazio alternatiboak dibertsifikatzea eta/edo areagotzea”, gertu zuelarik. Bi horiek izan ziren adostasun handiena bildu zuten esaldiak. Batez beste 9,1 eta 8,8ko atxikimendua eskuratu zuten, hurrenez hurren.

Goiko postuetan agertzen ziren, baita ere, garbiketarako areagotzearen inguruko esaldiak: “Garbitzaileen kontratazioa garbiketarako guztiak bermatzeko”, 9,1; eta “Eskuak maiz

Eskolek askotan aitortuta ez badute ere, zaintza funtzio garrantzitsua ere betetzen dute. Horrela, hainbat aldagaien bidez ikus daiteke familiek nolako zailtasunak dituzten eskolak funtzio hori betetzeari uzten dionean. Batetik, familiek eurek erantzunda, beste konfinamendu bat egongo balitz % 40,2k dio “ezingo ginateke konpondu umea zaintzeko”. Ezin zaintzeaz gain, ia proportzio berdinean (% 38,4) “denbora faltagatik, gurasook ezingo genioke gehiegi lagundu gai akademikoetan”.

garbitzea” 8,6ko batezbestekoak.

Hau da, ia erabateko adostasuna eskuratu zuten espazio irekiekin, dibertsifikazioarekin eta garbiketekin zerikusia zuten neurri motek. Adostasun zabaleko multzo horretan sar daiteke beste mota bateko neurri hau ere: “Laguntza psikologiko espezi-fikoa bermatzea ume zein langileei pandemian zehar” (8,6ko batezbestekoa lortu baitzuen). Hau da, alderdi psikologiko zein emozionala oso kontuan hartzen den elementu bat dela esan daiteke.

Apur bat baxuagoa bada ere, baina oraindik atxikimendu handiarekin agertzen ziren beste bi neurri: “Umeen ratioa erdira murriztea” (8,5) eta “Pilaketak saihesteko sarrera/irteera mailakatua jartzea” (8,3). Hortik aurrera, gainerako neurriekin nabarmenago jaisten doa agertutako atxikimendua.

Nolabait tarteko atxikimendua jasotzen zuten neurrien multzoan antolaketa neurri batzuk zeuden, eta

nabarmentzekoa iruditzen zaigu bertan irizpide pedagogikoak dituzten hainbat aurkitzen ditugula: “Goizeko ordutegia edo ordutegi jarraia ahalbidetzea” bederatzigarren postuan agertzen da eta, hamargarrenean, “Derrigortzen zaienean, ikasleei maskara nahikoak ematea edo hornitzea” (7,4ko batezbestekoarekin biak). Beherago, “Bizikidetzataldeak edota “burbuila-taldeak” sortzea” (6,9), “Ebaluazioa egoera berrira egokitu eta ikasturtea gainditzeko erraztasunak eman behar dira” (6,9), “Irakasleei aldikako PCR probak egitea” (6,8) eta “Curriculum edo hezkuntza programa malgutu eta lan erritmoa jaitsi beharko litzateke” (6,6). Hau da, arlo pedagogikoari dagokionean, gure interpretazioa da gurasoen aldetik egoera kontuan hartuta badutela nolabaiteko aldeko jarrera bat eduki curricularren edota ebaluazioaren malgutasunerako edo horren premia ikusten dutela neurri batean. Baina, aldi berean, betiko erritmoak eta exigentzia akademikoak mantentzeko nahia ere ageri da.

Azkenik, galdetutako neurrien artean, adierazgarria da, baita ere, aldeko jarrera baxuenak, gainerakoetatik koska batera, hurrengo biak izatea: “Ikastetxeetan 1,5 metroko distantzia soziala ezartzea” eta “Ikastetxeetan 6 urtetik gorakoek musukoak edo maskarak derrigorrez erabili beharra”. Hain zuzen hartutako neurri nagusietako bi, nagusienak ez badira.

## **Ikastetxeen autonomiaz bi hitz**

Ikastetxeen autonomiari dagokionez, familiei galdetu genienean ea ikastetxeek autonomia gehiago, berdina edo gutxiago behar duten, erantzuna argia izan zen: autonomia gehiago eduki beharko lukete (% 62,9). Kontrako posizioan, aldiz (autonomia gutxiago eduki beharko lukete), % 3,4 bakarrik kokatu ziren.

Autonomia horren barruan, nortzuk edo noren artean hartu beharko liratekeen erabakiak galdetuta, hiru subjektu ageri dira nabarmen besteen gaineratik eta antzeko proportzioekin: ikastetxeko zuzendaritza (% 88,5), irakasleria (% 86,3) eta gurasoak (% 85,8). Proportzio altuarekin baina 20 puntutara zerbitzu osagarrieta-

ko langileak (jangela, zaintza...) % 64,2arekin. Ikasleak (% 47,7) beste eragile edo erakundeen gaineratik ageri dira (Eusko Jaurilaritza / Nafarroako Gobernua % 37,3, sindikatuak % 30,2, udaletxeak % 30,2).

## **Eskolen heziketa funtzioetatik haratago**

Esan dugu aurretik, eskolek askotan aitortuta ez badute ere, zaintza funtzio garrantzitsua ere betetzen dute. Horrela, hainbat aldagaien bidez ikus daiteke familiek nolako zailtasunak dituzten eskolak funtzio hori betetzeari uzten dionean. Batetik, familiek eurek erantzunda, beste konfinamendu bat egongo balitz % 40,2k “ezingo ginateke konpondu umea zaintzeko”. Ezin zaintzeaz gain, ia proportzio berdinean (% 38,4) “denbora faltagatik, gurasook ezingo genioke gehiegi lagundu gai akademikoetan”.

Bestetik, aurretik ikusi dugu, “Goizeko ordutegia edo ordutegi jarraia ahalbidetzeak” 7,4ko adostasuna eskuratu zuen batez beste. Gainerako batezbestekoak ikusita, neurri horrek zalantzak edo aldeko eta kontrako multzoak sortzen dituela ematen du. Aldi berean, behar maila ezberdinarekin, baina % 70ak jantokia beharko luketela aipatzen zuten, enpleguan ordutegi malgutasuna nahiko luke tenak % 91,1 ziren; umea konfinatu behar bada zaintzaile bati baja aukera bermatzea % 90,8k eskatzen zuten edo % 88,2k amatasun/aitatasunarentzako laguntzak edo umeak zaintzeko muga gabeko aparteko baimena %84,8. Beraz, datu horiek ere agerian uzten dute eskolarik gabe familiek bizitza eta enplegua bateragarri egiteko dituzten zailtasunak.

Beraz, pandemia honek beste eremu askotan egin duen bezala, zaintza, heziketa eta hezkuntza formala lotzen diren eremuetan ere arrakala asko utzi ditu agerian. Inkesta honetatik eskuratutako datuek esparru honetan dauden gabeziak eta zailtasun batzuk erakusten dituzte. Ahal den neurrian, hori guztia kontuan hartzea eta hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa eta parte hartzea ezinbestekoa da modu holistiko batean erantzuten saiatu nahi bada.

# ARGITALPENAK



## GAU BELTZA

Josu Ozaita  
Joseba Larratxe

### TXALAPARTA

Anari amorratuta dago, etxean ez baita giro: Halloween ospatu nahi-ko luke, baina amak ezetz dio, jai arrotza dela eta ez duela baliorik sustatzen. Aitonak, ordea, kontatuko dio umetan haiek ospatzen zutela antzeko egun bat. Horrela, lagunekin arbasoen ohitura bat gaurkotuko du: Gau Beltza.




## ZERA

Stéphane Servant

### IKAS

Ipuin hau euskara batuan zein zubere-raz argitaratu du Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzuak. 3 urtetik gorako umeentzat irri-jokoan oinarritutako istorio bat kontatzen du: aintzira hegian “zera” bitxi bat topatzen dute animaliek eta ez dakite zer den. Ipuina entzungai dago Ikasen webgunean, batuaz zein zubere-raz.



## NOR NORK / NOR NORI NORK ADITZ KARTA

Ikas

### IKAS

Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzuak euskara lantzeko eta ikasteko baliabide berri bat kaleratu du: aditz karta bat. 9 urtetik gorako gaztetxoek Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork orainaldian eta iragan aldian lantzeko karta da. Modu ludikoan eta era jolastian ikasteko aukera ematen du.



## TARTA GOXOA

Christian Voltz

### PAMIELA-KALANDRAKA

Amets egiteko liburuak bildumako liburu honetan Anatole jauna tarta goxo bat egiten hasten da Zuriñe andereñoa datorrenerako. Baina ez du lortzen. Txakurra, untxia, sagua eta igela hurbiltzen zaizkio laguntzera, baina tartan ohikoak ez diren osagaiak gehitzeko esaten diote. Anatole ez da batere fio, baina Zuriñek atea jo du, jada hor da.




## AMONA TOMAXA ETA GIZANDIA

Ixabel Agirresarobe - Mattin

### ELKAR

Amona Tomaxa baserrian bizi zen, eta herritik urruti samar egon arren, auzokoak aholku eske askotan joaten zitzaizkion. Haren lagun Patxi Putxi artzaina ahuntz taldearekin mendira joatekoa zen. Horretarako, zubia zeharkatu beharko zuen, baina gizandi beldugarri bat egoten zen bertan eta bidean harrapatzen zuen guzti-guztia oso-osorik irentsi ohi zuen.



## NERABEAK EUSKARALDIAN, IZAN PUNTU! IZAN ERAGILE

Askoren artean

### LASARTE-ORIAKO UDALA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA EUSKO JAURLARITZA

Euskaraldia helduei zuzendua egon arren, Lasarte-Orian gazteei egokitu-tako ekimena egin zen ikerketa-ekin-tza gisa planteatuta. Orain, ikerketaren emaitzak eta ikerketa horretan gazteekin erabilitako baliabideak jasotzen dituzten liburuak argitaratu dituzte.

# PROPOSAMENA

## HitzKeta

### Haurrentzako euskal kulturaren sarea

Kezka batetik abiatutako egitasmoa da HitzKeta webgunea, eta behar bati erantzutera dator. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan belaunaldien artean dagoen hutsunea betetzeko xedez sortu den euskal abesti, olerki eta liburuen bilduma bat da, haurrei eta gurasoei zuzendua.



Ezkerretik eskuinera gaur egun HitzKeta egitasmoan buru-belarri dabiltzanak: Miren Puertas Abaunz, Naroa Mendizabal Sandonis eta Maddi Murgiondo Moiu. Haritz Mujika Lasa ere proiektuaren sustatzaile eta sortzaile izan zen beraiekin batera.

**E**z da kezka berria euskararen eta euskal kulturaren transmisioarena —edo transmisio ezarena—. Belaunaldien artean jarraipenik edo transmisiorik ez izateak soka asko etenda uzten ditu. Begien bistakoa da urteetako ezagutza, ohiturak eta jakinduria galtzeko arriskua. Belaunaldi berrientzat arrotza eta ezezaguna izatera irits daiteke, beren errealitatearekin loturarik ez duen ondarea izatera. Eta

hizkuntza eta kultura gutxitua garen heinean, arrakala bikoitza sortzen du eten horrek.

Egoera horren aurrean, erantzun egin dute zenbaitek, eta soluzioak edo proposamenak planteatu dituzte; horietako lau dira HitzKeta egitasmoaren sortzaileak. Haur Hezkuntzan graduatutako lau irakasle gazte dira, irakaskuntzan, euskararen eta euskal kulturaren interesa dutenak. Eta interes horrek eraman ditu Hitz-

Keta egitasmoa sortzera. “Hutsune nabarmena sumatu dugu belaunaldi berriengan, euskarari eta euskal kulturaren transmisioari dagokienez, eta hutsune hori betetzeko edo bederen arintzeko asmoz sortu dugu egitasmoa”, diote Naroa Mendizabal Sandonis, Haritz Mujika Lasa, Maddi Murgiondo Moiu eta Miren Puertas Abaunz egileek. Haurrentzako euskal abesti, olerki eta liburuen bilduma bat da HitzKeta, bereziki 6 urtera

arteko haurrentzat eta haiekin ari diren helduentzat pentsatua (gurasoentzat nahiz Haur Hezkuntzako hezitzaileentzat). Batzuei zein besteei eskainitako baliabide berri honen bidez, bildumako abesti, olerki zein liburuak erabil daitezke, ikasleekin lantzeko, seme-alabei kontatu eta kantatzeko eta, zergatik ez, norberak tarte atsegin bat pasatzeko.

Bilduma [www.hitzketa.eus](http://www.hitzketa.eus) webgunean topatuko dugu. Edukiak ataletan sailkatuta daude: alde batetik, liburuak; bestetik, abestiak, eta hirugarren atalean, berriz, olerkiak.

Liburuak bost multzotan sailkatuta daude: album ilustratuak, ipuinak, album mutuak, ahozotasuna lantzekoak eta bestelakoak. Liburuak erraz identifikatzeko, bakoitza bere azalarekin aurkeztu dute, eta liburuen inguruko informazioa ere erantsi dute: idazlea, ilustratzailea, argitaletxea, zein urtetakoa den, eta baita zein adinetako haurrentzako den ere. “Azken datu hori orientagarria dela azpimarratu dugu, jakin bai baitakigu irakurleen adina asko aldatu daitekeela”. Liburuen aukeraketa egitekoan, hainbat irizpide izan dituzte kontuan egileek: gaia, idatzitako modua, egitura eta ilustrazioak.

Abestien atalean dauden kantuak lau multzotan banatuta daude: eskuen mugimendua lantzeko abestiak; jolaserako edo dantzarakoak; animaliei buruzkoak eta lasaitzeko edo lotarako abestiak. Multzo bakoitzaren barruan, hainbat abestiren bideoak daude;


horietako batzuek abesti horretarako proposatutako dantza erakusten dute, eta gehienek abestiaren letra ere badakarte, nahi izanez gero, abestia kantatu eta dantzatzeko.

“Horrez gain, gehitu den diskografian, hurrekin erabiltzeko proposak diren zenbait diskoren izenak proposatu dira. Halaber, disko horien izenetako batzuen gainean klikatuta, diskoko abestiak entzuteko aukera dago”, argitu dute egileek.

Olerkien atalean, hizkuntzarekin jolasteko eta gozatzeko lau multzo daude: olerkiak (gaika antolatuta), asmakizunak, aho-korapiloak eta esaera zaharrak. “Atal bakoitzaren barruan, hainbat iturritatik lortutako dokumentuak jarri ditugu eskuragarri PDF formatuan, nahi izanez gero inprimatzeko”, azaldu dute egileek. “Gainera, dokumentu horiez gain, olerkiak, asmakizunak, aho-korapiloak edota esaera zaharrak zein liburutan topa daitezkeen jakin nahi izanez gero, azpian, “bibliografia” atalean klikatuta, liburuen zerrenda bat dago”.

### Proposamen didaktikoak ere bai

Bilduma bakoitzarekin batera, horietako bakoitza lantzeko hainbat proposamen didaktiko daude eskuragarri. “Liburuen kasuan, esate baterako, ilustrazioak erakutsiz ozen irakurtzea da proposamen bat; beste bat, helduak haurrari ipuina kontatzea, baina irakurri ahala antzetzuta, bai kontalariak, bai umeak berak; hirugarren proposamena ipuina txotxongiloen



### HitzKeta

[www.hitzketa.eus](http://www.hitzketa.eus)

#### - Haurrentzako euskal abestiak:

eskuen mugimendua lantzeko; jolaserako edo dantzarako; animaliei buruzkoak eta lasaitzeko edo lotarako abestiak.

- **Olerkiak:** olerkiak gaika antolatuta, asmakizunak, aho-korapiloak eta esaera zaharrak.

- **Liburuen bilduma:** album ilustratuak, ipuinak, album mutuak, ahozotasuna lantzekoak eta bestelakoak.

bidez kontatzea da, eta laugarrena, helduarena entzun ondoren haurrak berak kontatzea ipuina, horrela narrazio-gaitasuna garatzeko”.

Abestien ataleko proposamen didaktikoak abestera, dantzazera eta gorputz-perkusioa lantzeko gongoratzen du.

Hirugarren ataleko olerkiak, asmakizunak, aho-korapiloak eta esaera zaharrak hurrekin, familia giroan, lagunartean eta beste hainbat modutan lantzeko proposamen didaktiko bat ere badago. Olerkiak lantzeko, hainbat modu eskaintzen dira: ozen irakurtzea, onomatopeien jolasa, memoria-jolasa eta irudikapen-jolasa.

### Denen artean aberasten

“Haurrentzako dagoen euskarazko materiala orri batean bildu eta denen eskura jartzea da gure helburua”, diote sustatzaileek. “Gaur egun, saireak aukera anitz eskaintzen ditu, eta horiek baliatu nahi izan ditugu”.

Ez da amaitutzat ematen duten lana. Bilduma osatzen eta aberasten jarraitzeko asmoa dute, “eta ekarpenak eta laguntza jasotzeko prest gaude”, diote egileek. Harremanetarako atal bat egokitu dute horretarako, nahi duen orok haiei ekarpenak helarazteko eta denen artean webgunea osatu eta aberasteko. Eta baita harpidetzeko ere.

The screenshot shows the HitzKeta website interface. At the top, there is a navigation bar with the text "Jaso hilabeteko buletina dohainik" and a "HARPIDETU!" button. Below this, the website URL "www.hitzketa.eus" is visible. The main content area displays a grid of book covers and their details. The books shown are:

- GOSE HANDIKO BELDARRA**: Idazlea: Carle, Eric; Ilustratzailea: Carle, Eric; Urtea: 2007; Argitaletxea: Kalandrea; Adina: 0 urtefik aurrera.
- NIRE ETXEA**: Idazlea: Jadoul, Emilie; Ilustratzailea: Jadoul, Emilie; Urtea: 2008; Argitaletxea: Ibaizabal; Adina: 0 urtefik aurrera.
- OTSOA DATOZ!**: Idazlea: Jadoul, Emilie; Ilustratzailea: Jadoul, Emilie; Urtea: 2006; Argitaletxea: Ibaizabal; Adina: 0 urtefik aurrera.
- LIBURU**: Idazlea: Jadoul, Emilie; Ilustratzailea: Jadoul, Emilie; Urtea: 2006; Argitaletxea: Ibaizabal; Adina: 0 urtefik aurrera.
- KOLOREAK**: Idazlea: Jadoul, Emilie; Ilustratzailea: Jadoul, Emilie; Urtea: 2006; Argitaletxea: Ibaizabal; Adina: 0 urtefik aurrera.

# ATZEKO ATETIK



## IKUSTATEZ ETA MIRESMENEZ

**AINES DUFAU** IKAS-EKO ZUZENDARIA

1999. urtea. Iparraldean euskarazko ikasmaterialgintzan berezitua den Ikas zentroak lehenbiziko ikastresna argitaratu berria zuen: euskararen eta psikomotrizitatearen lantzeko *Kantiruri* CD eta liburuxka, eta irakasleen gidaliburua.

**Hik Hasi** dela medio, ikastresna xume hori aurkezteko gomita izan genuen Pantxika Solorzano egileak eta biek Musika Irakasle Euskaldunon Lehengo Topaketan, Donostian. Han, 150 bat irakasle, eta horien artean izenez eta obren bidez ezagun zitzaigun Imanol Urbietia.

Topaketen ondotik, elkarriketa ere izan genuen 1999ko maiatzeko aldizkarian (38. zenb.).

**Hik Hasiri** esker, Iparraldeko eta EAE-Nafarroako curriculumak ezberdinak izanik ere, euskararen herrian bat egiten gaituena balioztatua da beti.

**Hik Hasi** aldizkaria sekulako ezagutza hazlekua dugu, kalitate handiko argitalpena baita, eta eduki aberatsekoa: hezkuntza saileko teoriak eta praktikak molde erakargarrian aurkeztuak, irakaskuntzako marko juridiko-administratiboak eta herri mugimenduen ihardukitzeak,

hezkuntzako langileen lan baldintzak, ikastresna berriak...

Hezkuntza herri osoaren egitekoa baita, herritar guztiei gogo hazkurri zaizkigun gaiak atzematzen ditugu **Hik Hasin**, hala nola: pedagogia, kultura transmisioa, genero kontuak, software libreen erabilera, ergonomia, haur eta gazteen bizitza hunkitzen duten jendarte mailako gai asko, etab.

Lehengo iturrietatik edanez (*Euskal Herrian erreferente diren pedagogoak*) eta oraingo bide berritzaileak ikertuz, Euskal Herrian barna eta munduan gaindi ikuska dabil **Hik Hasiko** taldea, hitza unibertsitario-ikerlariei eta egunero gazteekin ari diren irakasleei eta hezitzaileei luzatuz.

Espantagarria iduritzen zait, adibidez, gurea bezalako herri ttipi bateko lantalde batek Finlandiara joan eta, hango gobernuko hezkuntza aholkularia Donostiara ekarrarazi, laurehun bat irakasle behatzaile bildu, eta orduko gogoeta aztarnak aldizkarian eman ahal izatea.

Gisa horretako jardunaldiek eta argitalpenek agerian ematen dute Euskal Herria egiazko herria dela, eta garaiko jokagaien araberako hezkun-

tza proiektua iruten ari dela beti.

Iparraldekoak hamaika aldiz gomit izan gara **Hik Hasiren** ekitaldietara. Batzuetan parte hartu dugu baina funtsezko mugarrietan ezin... Adibidez, pena dut Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak idazteko unean (ikus 2017ko azaroko **Hik Hasin**, 222. zenb.) kanpo egon baikara, mugimenduari ezin jarraikiz.

Gomitak Joxe Mari Auzmendik egiten zizkigun beti, gure gogoan **Hik Hasik** eta Joxe Marik bat egiten dutela.

Joxe Marik barne-barnetik bizi zuen Euskal Herriaren batasuna, eta ahal zuen guztietan “zentrotik periferiara” heldu zen, guregana, hots, beti jendekin eta gure berri jakin-nahia. Ezin estimatuzko jauna, Joxe Mari. Gure gogo-bihotzetan bizirik.

Joxe Mari ongi inguratua zen, eta horren froga dugu **Hik Hasi** beti aitzina doala. Obra sendo hori balio berak biltzen dituen jende multzoari zor diogu. Goresmenak eta eskerrik bizienak zuei, eta bereziki **Hik Hasiren** jarraipena egunero segurtatzen duzuen lagunei!




25  
hh  
hik hasi URTE



# ZORIONAK, HIK HASI

## GEROA ELKARREKIN IDATZIKO DUGU!

# Pirritx, Porrotx eta Marimotots



ipuina  
+  
diskoa



Beldarrak tximeleta bihurtzen dira. Eta gu?  
Naturak heriotza ulertzen lagunduko die  
Pirritx, Porrotx eta Marimototsi

[www.katxiporreta.eus](http://www.katxiporreta.eus)



**Katxiporreta**  
KOOPE.

Oria etorbidea, 10  
Brunet Eraikina 5, E-4  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 368 404